

KOIUNTURAZ

64. zkia. – 3. HIRUHILEKOA

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123

AURKIBIDEA

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA.....	1
EAE-KO EKONOMIA 2008KO BIGARREN HIRUHILEKOAN.....	8
EAEko ekonomiaren testuingurua	8
Ekoizpena eta eskaria.....	15
Ekoizpen jarduera	16
Eskariaren osagaiak	20
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	23
Lan merkatua.....	30
Prezioak, kostuak eta soldatak	36
Arlo publikoa.....	41
Finantza arloa	44
EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK	49
Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak	49
EAErako aurreikuspenak epe laburrean	57

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

2008ko bigarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak 2007. urtearen erdialdetik erakusten ari den moteltzeko joerari jarraipena eman zion, eta barne produktu gordinaren urte arteko aldakuntza tasa %2,6 areagotu zuen. Zenbateko hori azken bost urteko gehikuntza tasa txikiena da. Hala ere, Europar Batasuneko batez bestekak, espainiar ekonomiak edo inguruneko gainontzeko herrialde nagusiek lortu duten emaitzekin alderatzen bada, begi bistan dago EAEkoa oraindik gehikuntza tasa garrantzitsua dela, aipatutako eremu horietakoak gainditzen dituelako. Halaber, Estatuarekiko hazkunde aldea zortzi hamarrenetara zabaldu da bigarren hiruhilekoan, EAEko ekoizpen egitura gaur eguneko une zailari erantzun hobea ematen ari dela agerian utziz.

BARNE PRODUKTU GORDINA

1. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007			2008	
			II	III	IV	I	II
Europar Batasuna 27	3,1	2,9	2,9	2,9	2,5	2,3	1,6
- EAE	4,4	4,1	4,3	4,0	3,8	3,1	2,6
- Espainia	3,9	3,8	3,9	3,6	3,3	2,6	1,8
- Alemania	3,0	2,5	2,5	2,4	1,7	2,6	1,7
- Frantzia	2,2	2,2	1,7	2,4	2,2	2,1	1,1
- Italia	1,8	1,5	1,7	1,6	0,2	0,3	-0,0
- Erresuma Batua	2,9	3,1	3,3	3,1	2,8	2,3	1,4
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	2,8	2,0	1,8	2,8	2,3	2,5	2,1
Japonia	2,4	2,1	1,8	1,8	1,4	1,2	1,0
Txina	11,6	11,9	11,9	11,5	11,2	10,6	10,1
India	9,8	9,3	9,2	9,2	8,9	8,8	7,9

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, Eustat eta Eurostat.

Munduko ekonomia, oro har, gehiago ari da hautematen azken aldian sortu diren arazoek konbinaketaren ondorioak: finantza krisia, higiezinaren krisia zenbait herrialdetan, eta lehengai batzuen garestitze oso garrantzitsuak. Aipatutako arazo horien eragina garatutako herrialdeetan sentitu dira neurri handiagoan, baina garapen bidean dauden ekonomiek ere aurreko hiruhilekoetan baino gehikuntza tasa txikiagoak jaso zituzten bigarrenean. Alde batetik, inflazioak herrialde horietan ere eragin zuzena dauka, eta, beste aldetik, beraiek ekoizten dituzten ondasunen erosle nagusia, hots, AEBak, bere diruaren ahultasunaz baliatzen ari da

kanpo saldoa orekatzeko, esportazioak nabarmen areagotuz eta, bereziki, inportazioetan murrizketa zorrotzak eginez.


Munduko ekonomia baldintzatzen duten alderdi batzuek, hala nola kreditu murrizketa ekarri duen eta likidezian tentsioak eragin dituen finantza merkatuetako krisiak, AEBetan dute jatorria, eta handik gainontzeko ekonomia eremuetara hedatu dira. Hala ere, herrialde horretako malgutasunak eta ekonomia zein finantza agintarien erantzun azkarrak hiruhilabetearen moteltzea lau hamarrenetara mugatu izana ahalbidetu dute. Bertako kontsumo pribatua ahula da oraindik, baina tasa egonkor batean hazi zen; etxebizitzetan eginiko inbertsioak %20tik gorako beherakada jaso zuen berriro, obra zibilaren bultzadak jaitziera hori neurri batean konpentsatu zuen arren. Horiek horrela, barne eskariak hazkundeari egin zion ekarpena puntu erdi batekoa izan zen bakarrik, gehikuntzaren zati nagusia kanpo eskariak ekarri baitzuen. Urtearen bigarren erdirako iradokitzen den eszenategi batean, zeinean dolarrak balioa berreskuratuko baitu eta zergen bidezko onurak agortuko baitira, zaila dirudi hazkunde eredu horrek jarraituko duenik.

Europako ekonomien ustezko sendotasuna kezkatzeko moduko bizitasun galera batek ordezkatu du herrialde nagusietan. Hala ere, bilakaera hori lehen hiruhilabeteako datu harrigarri positiboak, eraikuntzaren bultzadari esker, baldintzatu du. Alemania da portaera horren adibide onena (1. taula). Oro har, Europar Batasunak zazpi hamarrenetan gutxitu zuen bere urte arteko aldakuntza tasa, %1,6an kokatu arte. Bilakaera horren atzean, kontsumo pribatuaren zein eraikuntzan eginiko kapital eraketa gordinaren ahultasun handiagoa dago. Aitzitik, kanpo arloak ekarpen positiboa egin zuen berriro, euroa dolarren aldean sendo egon arren. Ikuspegi orokor batean, industriaren hazkundera gero eta txikiagoa izan zen, hilabeteak aurrera joan ahala.

Analisisgileak eta politika publikoen arduradunak gehien kezkatzen dituen arrazoietakoa bat inflazioaren bilakaera da, banku zentralak ezarritako helburuetatik oso gora baitago. Petrolioia eta zerealak bezalako lehengaien garestitzeak kontsumorako ondasunen salneurriak gorarazi ditu eta hori oztupoa da moneta politika familien finantza kostua arinduko duten eta enpresen proiektu berriak martxan jartzen lagunduko duten interes tasa apalagoetara zuzentzeko. Hala eta guztiz ere, hirugarren hiruhilabeterako dagoeneko ezagutarazi diren hilabeteetan, lehengai horien bilakaerak igoeren erritmoa galgatu dela iradokitzen du (1. irudia). Are gehiago, zenbait prezio hasi dira jaisten eta horrek eragina izango du datozen hilabeteetako kontsumo prezioen indizearen datuetan. Dena dela, lehengaien salneurrien apaltzea gainontzeko prezioetara igaro arte eta ekonomia eragileen igurikimeneak hobera egin arte denbora beharko da eta ez dirudi urtea amaitu baino lehen gertatuko denik.

Zenbait lehengaien bilakaera eurotan neurtuta

1. irudia



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Truke tasa paper garrantzitsua ari da jokatzeko gaur eguneko egoera ekonomikoan. Dagoeneko aurreratu denez, AEBak kanpo desoreka zuzentzen ari dira, baina Euroguneko herrialdeek munduko gainontzeko herrialdeekiko saldo positiboari eusten diote, garapen bidean dauden herrialdeen bizitasunari esker, Europako esportazioak bultzatzen ari direlako. Hala ere, euroaren sendotasunak indarra galdu du azken asteetan eta europar diruak balioa galdu du dolarren aldean, ekonomia batek eta besteak lortu duen hazkunde erritmoaren arteko aldearen ondorioz, une hauetan estatubatuarrek hazkunde biziagoa lortu dutelako. Mugimendu horiek mesede egingo diete europar esportazioei eta, aldi berean, enpresen baikortasuna suspertzen lagundu.

Burtsa merkatuak ere kaltetuta geratu dira finantza merkatuetan bizi den ziurgabetasuneko aldiarengatik eta ekonomia eragileen konfiantza galerarengatik. Hain zuzen ere, urtea hasi zenetik Ibex 35 indizeak balioaren %20 baino gehiago galdu du eta dagoeneko 2006 eta 2007 urteetako batez besteko balioen azpitik kokatu da (2. irudia).



Testuinguru horretan, EAEko ekonomiak bigarren hiruhilekoan %2,6 areagotu zuen bere barne produktu gordina, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi bat gutxiago, baina mendebaleko ekonomia nagusien emaitzak baino askoz ere gehiago delarik (1. taula). Beraz, aurreko hiruhilekoetan gertatu zen eta, dagoeneko adierazi denez, munduko ekonomiari eta garatutako herrialde nagusi gehienei eragin dien moteltzeko joerari jarraipena eman dio.

Finantza arloko adierazleak

2. irudia

Truke tasa: dolarrak euroko

Ibex 35



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Eskariaren ikuspegitik, azken urteetan etengabe jaso zen kanpo arloaren ekarpen negatiboak zuzentzeko joera hartu du eta puntu neutro batera igaro da. Beraz, EAEko ekonomiaren hazkunde osoa barne eskariaren bultzadaren ondorio zuzena da. Zentzu horretan, EAEko ekonomiaren portaera ez dator bat Europako beste ekonomiekin, hala nola alemaniarrekin edo espainiarrekin, euroa sendo egon arren beraien kanpo saldoak ekarpen positiboa egin duelako. EAEko barne eskaria puntu erdi bat apaldu zen bigarren hiruhilekoan, kontsumo pribatuaren apaltze garrantzitsuen ondorioz. Prezioen garestitzea, interes tasen igoera, kredituaren murrizketa, enplegu gutxiago sortu izana eta igurikimenak okerragoak izatea dira familien gastua gutxiago hazi izanaren zenbait arrazoi. Kontsumo pribatuaren ahultasuna, neurri batean, arlo publikoaren bultzadak konpentsatu du. Izan ere, administrazioen kontsumoak ekonomia osoaren aldakuntza tasa bikoiztu du. Ekonomiaren bilakaeran erabakigarria den beste alderdi bat kapitaleko eraketa gordinaren bizitasuna da, etxebizitzetan eginiko inbertsioak zailtasunak eduki arren.


Sektoreen ikuspegitik, industrian eta eraikuntzan dauden zailtasunak azpimarratu behar dira, bi arloak moteltzeko prozesu bizian murgilduta baitaude. Hain zuzen ere, duela urtebete bat bi sektore horien hazkunde erritmoa %5aren ingurukoa zen, baina gaur egun %1 nekez gaintzen dute. Eraikuntzaren arazoaren artean, saldu gabe dagoen etxebizitzaren kopuru handia, prezioak denbora luzez asko igo ondoren orain jaitsi izana, hipoteken kostua handiagoa eta kreditu bat lortzeko baldintzak gogortu izana aipatu behar dira. Abiadura handiko trenaren beste zati batzuk esleitzeak eta babestutako etxebizitzaren aldeko politikari eusteak etxebizitzaren

arloak dituen arazoak neurri batean konpentsatuko dituela espero da. Ekonomiaren egoera orokorrak eragina izan du industrian ere, bereziki kontsumo pribatuaren eta eraikuntzaren ahultasunaren ondorioz. Horiek horrela, kontsumorako ondasunak ekoizten dituzten adarrak dira bilakaera negatiboena eskaintzen dituztenak. Aitzitik, energiaren eta ekipamendurako ondasunen ekoizpenak emaitza hobeak jaso zituzten.


BPGren hiruhilabeteko hazkundera eta ekarpenak

3. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Eskarrien ekarpenak



Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Zerbitzuak dira ekonomiaren moteltzea gutxien nabaritu duen arloa eta bi hamarrenetan bakarrik gutxitu zuten aurreko hiruhilabeteko erritmoa. Jarduera multzo horretan, azpimarratzekoa da administrazio publikoari lotuta dauden zerbitzuek lortu duten bultzada handia, urte arteko tasa %6,5ean mantendu zutelako, azken urteetan ohikoak ziren zenbatekoen oso gainetik. Bilakaera horren atzean, arlo publikoak ekonomia sustatzeko duen asmoa dago, arlo pribatuko jarduera gero eta ahultasun handiagoa erakusten ari den une batean, administrazioaren parte hartzea murrizteak ekonomia osoaren egoera okerragotuko zuelakoan. Merkaturatzen diren zerbitzuek, berriz, %2,7ko gehikuntza tasa garrantzitsua eskaini zuten, aurreko hiruhilekoan jasotakoa baino hiru hamarren bakarrik txikiagoa delarik.

Ekoizpenak bizitasuna galdu zuenez, lanpostu gutxiago sortu ziren eta urte arteko tasa %1,1era mugatu zen, hots, lehen hiruhilekoan lortu zena baino sei hamarren gutxiago. Enplegu gutxiago sortu izana, eraikuntzan galdu ziren lanpostuen ondorio zuzena da, gainontzeko arloetan aldakuntza tasa positiboa izan zen bitartean. Hala eta guztiz ere, ekoizkortasun irabaziak ia ez ziren aldatu aurreko bi hiruhilabeteetan lortutako mailetatik.

Beste aldetik, langabezia tasak igoera txikia izan zuen eta %3,5ean kokatu, oraindik Estatuko batez besteren eta Europako herrialde nagusien emaitzen oso azpitik.

EAE-KO EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007			2008	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala	4,4	4,1	4,3	4,0	3,8	3,1	2,6
Enplegua	2,2	2,8	3,0	2,7	2,7	1,7	1,1
Ekoizkortasun irabaziak	2,1	1,3	1,3	1,3	1,1	1,4	1,5
Langabezia tasa	4,1	3,3	3,4	3,1	3,1	3,3	3,5
Kontsumoko prezioen indizea	3,4	2,8	2,5	2,5	4,0	4,3	4,5

Iturria: Eustat eta INE.

Ekonomia eremu nagusietan gertatzen den bezala, inflazioaren bilakaera oztopoa da Euskadin ere ekonomiaren hazkundera ordenatuagoa izan dadin. Petrolioaren eta janarietako lehengaien garestitzeak eta zenbait zerbitzuek beren igoerak gutxitzeko erakusten dituzten oztupoek kontsumoko prezioen indizearen urte arteko aldakuntza tasa %4,5era igoarazi zuten hiruhilabeteko batez bestean. Are gehiago, uztailen balio hori %5,2ra igo zen. Aipatutako faktore horietako batzuk beheranzko joera hartu berri dutenez, abuztuko tasa %4,9ra murriztu zen, nahiz eta oraindik %2 ez gainditzeko helburuaren oso gainetik dagoen.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak datozen hiruhilekoei begira egin dituen aurreikuspenek adierazten dute gaur egun bizi den moteltzeko joerak 2008 eta 2009 urteetan jarraituko duela, eta, hurrenez hurren, batez besteko gehikuntza tasa %2,3an eta %1,5ean kokatuko direla. Proporzioz, doikuntzaren zati handiena aurtengo azken bi hiruhilekoetan gertatuko da, beraietan ekonomiaren hazkunde tasa puntu erdi bana galduko baitu, gutxi gorabehera, hiruhileko bakoitzean. 2009. urtean, erritmo galera askoz ere txikiagoa izango da eta hiruhileko bakoitzean hamarren bat bakarrik galduko da. Urte horretan suspertzeko zantzu argirik hautemango ez bada ere, adierazi behar da BPGren urte arteko aldakuntza tasak %1,5aren ingurukoak izango direla, gaur eguneko egoera txarra kontuan hartuta zenbaki nahiko altua delarik.

Oro har, barne eskariaren osagai guztiek, eta bereziki kontsumo pribatuak, hazkunde erritmoa galgatu dutela aurreikusten da, baina kanpo arloaren ekarpen negatiboa hamarren batera edo

bira mugatuko da. Espainiako barne eskaria gehiago motelduko denez, zaila izango da EAEko ekonomiaren kanpo saldoa positiboa izatea, atzerriarekiko saldoak hobera egingo duela aurreikusi arren. Eskaintzaren ikuspegitik, eraikuntzarentzat eta industriarentzat ahultasuna iragartzen da. Hala ere, industriak suspertzeko bidea hartuko du 2009. urtearen erdialdean.

EAE-RAKO AURREIKUSPENEN LABURPENA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2008		2009			
			III	IV	I	II	III	IV
BPG errealak	2,3	1,5	2,0	1,6	1,6	1,5	1,5	1,4
BPGren deflatoarea	3,8	3,0	3,8	3,4	3,3	3,2	2,9	2,6
Enplegua	1,2	0,7	1,1	0,9	0,8	0,8	0,7	0,5
Langabezia tasa	3,8	4,3	4,0	4,2	4,2	4,2	4,4	4,4

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Prezioek portaera apalagoa erakutsiko dute, lehengaien salneurriak nazioarteko merkatuetan moteltzen diren heinean eta barne eskariak presio txikiagoa egiten den neurrian. Ekonomiak lanpostu berriak sortzeko duen ahalmena %1etik beherako tasetara mugatuko da, baina ez da aurreikusten lanpostuen kopurua jaitsiko denik. Hala eta guztiz ere, langabezia tasa hamarren gutxi batzuk igoko da, baina ez da enplegu beteko mailatik asko aldenduko, lanpostu bat eskatzen dutenen kopurua gutxi haziko delako.

EAE-KO EKONOMIA 2008KO BIGARREN HIRUHILEKOAN

EAEko ekonomiaren testuingurua

2008ko bigarren hiruhilekoan, finantza merkatuetako tentsioak bere horretan mantendu izanak, lehengaien salneurrien gorakadak eta industrializatutako hainbat ekonomiatan gauzatu diren higiezin merkatuko doikuntzek munduko ekonomiaren hazkundeari kalte egin zioten. Horri erantsi behar zaizkio inflazioaren aurreikuspenak okerragotu izana eta garatutako ekonomien doikuntza makroekonomikoa. Aurreko guztiaren ondorioz, gaur eguneko eszenategia aurreko hiruhilabeteetako baino zalantzaz beteago dago eta oraingo motelaldia 2009. urtetik harago luzatuko delako probabilitatea gero eta handiagoa da. Horiek horrela, eta munduko jarduera zertxobait apaldu den arren, nolabaiteko sendotasuna erakutsiko duela espero da, bereziki garapen bidean dauden ekonomien hazkunde iraunkorrean oinarrituta.

Estatubatuar ekonomiaren moteltzea hasi da munduko ekonomiaren zikloan bere eragina uzten. Are gehiago, badirudi gainontzeko herrialde garatuek neurri handiagoan nozitzen dituztela arazo horiek. Hain zuzen ere, AEBetako ekonomiak %2,1eko urte arteko hazkunde tasa jaso zuen, lehen hiruhilabeteako emaitza baino lau hamarren apalagoa bakarrik delarik. Neurri batean, bertako Gobernuak ekonomia suspertzeko bideratu duen programak lagundu du emaitzak hobetzen. Japoniak, berriz, egoera zail bati egin behar dio aurre, esportazioen mendeaz hazten baita. Moteltze orokorreko testuinguru honetan, Japoniako BPGren gehikuntza tasa %0,8ra mugatu da, 2001eko atzeralditik inoizko txikiena delarik.


Europar Batasunak ere ez zuen aparteko bilakaerarik erakutsi. Europako ekonomia ahultasuneko aldi batean dago murgilduta. Lehengaien prezio altuek eta inbertsioaren gutxitzeak eragin zuzena dute barne eskarian eta kontsumitzaileen konfiantzan. Hala ere, ekonomia jarduerak jaso zuen beherakada, aurreko hiruhilekoaren aldean zazpi hamarren gutxiago hazi baitzen, %1,6 bakarrik, neurri batean 2008ko lehen hiruhilekoan, herrialde nagusi batzuetan eguraldi onak eraikuntzaren jarduera bultzatuta, lortu zuen ezusteko hazkundearen ondorioa da.

Munduko ekonomiaren moteltzeak eta nazioarteko merkatuen eskari ahulak garapen bidean dauden herrialdeetan eragin kaltegarria utzi zuten arren, herrialde horiek hazkunde sendoko irudiarri eutsi zioten. Txina %10,1 hazi zen eta munduko ekonomiaren bultzagile nagusiaren papera bete zuen berriro, bere esportazioen gehikuntza tasa nabarmen gutxitu zen arren. India %7,9 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino bederatzi hamarren gutxiago delarik, baina oraindik tasa bizia delarik.


Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak

4. irudia


Europar Batasuna




AEB




Alemania




Frantzia



Erresuma Batua



Japonia



Iturria: Eurostat.

AEBek urteko bigarren hiruhilekoan ahultasuneko zantzu berriak erakutsi zituen, duela urtebete bat hasitako finantza eta higiezin krisitik eratorriak. Kontsumo pribatuaren hazkunde tasak berriro egin zuen behera, Gobernuak ekonomia suspertzeko bideratu zuen programak lagundu arren. Etxebizitzetan eginiko inbertsioak gutxienez azken hamarkadako beherakadarik handiena jaso zuen, %21,7 murriztu baitzen. Barne eskariaren ahultasuna kanpo arloak sobera konpentsatu zuen eta hazkundearen oinarri nagusia da gaur egun. Kanpo arloak puntu bat eta erdi baino gehiago ekarri zion gehikuntza tasari, inportazioen ahultasunari eta dolarraren balio galerak emandako lehiakortasun irabaziei esker. Estatubatuar ekonomiaren kezkak ez ziren barne eskariaren apaltze handia eta higiezin merkatuaren arazoak bakarrik. Prezioek bigarren hiruhilekoan azken 17 urteko gorakadarik handiena jaso zuten eta KPI indizea %4,4an kokatu zen. Lan merkatuan berriro galdu ziren lanpostuak eta langabezia tasa %5,3ra igo zen, azken hiru urteko gorena delarik.

Japonian, ekonomiaren jarduerak moteltzeko joera garbia erakutsi zuen, barne eskariaren geldotasunaren eta esportazioen emaitza ahulagoen ondorioz. Barneko eskariak bigarren hiruhilekoz jarraian indarra galdu zuen, inbertsioaren ahultasunarengatik eta kontsumoaren makaltasunarengatik. Esportazioen apaltzea, berriz, AEBetan kreditua murrizteko joeraren ondorioa izan zen, bertatik eginiko eskaerak nabarmen gutxitu zirelako. Jasotako emaitzen arabera, Japoniako gobernuak amaitutzat jo du Bigarren Mundu Gerratik herrialdeak bizi duen hazkunde aldi luzeena. Ekonomiaren egoera aldatzen ez den bitartean, japoniar ekonomia hobetuko delako itxaropenak, neurri handi batean, Asiako gainontzeko ekonomien bizitasunaren mendean egongo dira. Langabezia tasak, berriz, zertxobait gora egin zuen eta prezioak %1,4 igo ziren, azken urteetako tasarik gorena, inportatutako ondasunen garestitzearen ondorioz.

Txinako ekonomiak hazkunde egonkor eta azkarrari eutsi zion, nahiz eta herrialdeak barneko zein kanpoko zailtasun eta erronka askori aurre egin behar izan zion, hala nola maiatzeko lurrikara suntsitzaileari eta uholde garrantzitsuei. Horiek horrela, bertako BPG %10,1 areagotu zen bigarren hiruhilekoan, lehengo hiruhilekoan baino bost hamarren gutxiago eta munduko ekonomiak izan duen erritmo galerarekin bat eginez. Jarduerak izan zuen hazkunde txikiagoaren atzean kanpo eskariaren moteltzea dago, esportazioen gehikuntza tasa jaitsi zelako inportazioak %30 areagotu ziren bitartean, neurri handi batean lehengaiak garestitu zirelako eta renminbiak balioa irabazi zuelako. Halaber, aktibo finkoen inbertsio erreala astiroago hazi zen. Barne eskariaren gainontzeko osagaiek bilakaera ona erakutsi zuten. Inflazioaren kontrola berriro izan zen txinatar gobernuaren lehentasun nagusia eta neurri asko konbinatuta KPI jaitsarazi zuen %7,8ra, lehen hiruhilabeteko emaitzaren bi hamarren beherago.

INGURUNEKO EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

4. TAULA

	2006	2007	2007			2008	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala							
AEB	2,8	2,0	1,8	2,8	2,3	2,5	2,1
Japonia	2,4	2,1	1,8	1,8	1,4	1,2	0,8
EB - 27	3,1	2,9	2,9	2,9	2,5	2,3	1,6
- Alemania	3,0	2,5	2,5	2,4	1,7	2,6	1,7
- Frantzia	2,2	2,2	1,7	2,4	2,2	2,1	1,1
- Erresuma Batua	2,9	3,1	3,3	3,1	2,8	2,3	1,4
Inflazioa							
AEB	3,2	2,9	2,7	2,4	4,0	4,1	4,4
Japonia	0,2	0,1	-0,1	-0,1	0,5	1,0	1,4
EB - 27	2,3	2,4	2,2	2,1	3,0	3,5	3,9
- Alemania	1,8	2,3	2,0	2,2	3,0	3,1	3,0
- Frantzia	1,9	1,6	1,3	1,4	2,5	3,3	3,7
- Erresuma Batua	2,3	2,3	2,6	1,8	2,1	2,4	2,4
Langabezia tasa							
AEB	4,6	4,6	4,5	4,7	4,8	4,9	5,3
Japonia	4,1	3,9	3,8	3,8	3,8	3,9	4,0
EB - 27	8,2	7,1	7,2	7,0	6,9	6,8	6,8
- Alemania	9,8	8,4	8,5	8,3	8,0	7,6	7,4
- Frantzia	9,2	8,3	8,4	8,1	7,9	7,6	7,5
- Erresuma Batua	5,3	5,3	5,3	5,3	5,1	5,2	5,3(*)

(*) Apirilaren eta maiatzaren batez bestea.

Iturria: Eurostat eta ELGE.

Europar Batasunak nabarmen apaldu zuen bere hazkunde tasa eta %1,6ra murriztu zuen, aurreko hiruhilabeteko emaitza baino zazpi hamarren gutxiago delarik. Garapen bidean dauden ekonomien bizitasuna ez zen nahiko izan europar bultzagile nagusi zenbaitek jaso zuten galga konpentsatzeko. Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta Espainia bezalako herrialdeek nozitu zuten moteltzeak murrizketa garrantzitsua egin zion Europako hazkundeari, bizitasun handiko lehen hiruhilabete baten ondoren. Zehazkiago adierazita, kontsumo pribatuak berriro egin zuen atzera eta nabarmen moteldu zen. Inbertsioa ere bide beretik joan zen eta azken hiruhilabeteetan gehikuntza tasari eutsi bazion ere, eraikuntzan eginiko inbertsioaren etengabeko beherakadak azkenean kalte egin zion. Kanpo eskariak bi hamarren ekarri zizkion hazkundeari. Ekarpen hori aurtengo hiru hilabeteetan eginikoa baino txikiagoa izan zen, euroaren sendotasunaren ondorioz, esportatzea zailagoa egin zuelako.

Alderdi txarrena prezioen bilakaera izan zen, duela urtebete bat jaso zuen hazkunde maila ia bikoiztu zuelako. Hain zuzen ere, inflazioaren tasa %3,7ra igo zen, euroaren ia hamar urteko bizitzan inoizko mailarik gorena delarik. Lan merkatuak, berriz, aldaketa gutxi izan zuen eta langabezia tasa %6,8an mantendu zen, bigarren hiruhilekoz jarraian.

Aurtengo lehen hilabeteetan nazioarteko ekonomiaren zurrumbiloei aurre egin ondoren, bereziki inbertsioaren sendotasunarekin eta eskaeren bizitasunekin, Alemaniako ekonomiak moteltzeko joera hartu zuen. Hain zuzen ere, bertako barne produktu gordina %1,7 hazi zen, aurreko hiruhilabeteen baino bederatzi hamarren gutxiago. Prezioen gorakada garbiak, alemaniarrek aurrezteko duten joerak, soldaten igoera asko hazi ez izanak eta BEZ zergaren igoerak kontsumoaren hazkundera nabarmen gutxitu zuten. Horri gehitzen bazaio inbertsioa ere gutxiago hazi zela, ezinbestekoa da barne eskaria motelago ibiltzea. Kanpo arloak ere ez zuen bilakaera onik erakutsi. Hazkundeari ekarpen bat egin zion arren, berau txikiagoa izan zen, euroaren sendotasunaren ondorioz, esportazioen garapena oztopatu zuelako. Datu onena lan merkatuaren egoerak jarri du, langabezia tasa berriro jaitsi zelako. Kontsumoko prezioen bilakaera ere onartzeko modukoa izan zen, egonkor baina beheranzko joera arin batekin mantendu zirelako.

Frantzian ere moteltzeko joera orokorra hedatu zen eta bere hazkunde tasa puntu oso bat murriztu zuen bigarren hiruhilekoan, %1,1 hazita. Kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren apaltze garrantzitsua ezin izan zen konpentsatu kontsumo publikoaren gorakada arinarekin. Herrialde horretako hazkundearen beste oinarri nagusia, hots, esportazioa, kaltetuta geratu zen euroaren sendotasunarengatik eta finantza merkatuetako ezegonkortasunarengatik. Hori dela eta, kanpo eskariak hainbat hamarren kendu zizkion ekonomiaren hazkundeari. Langabezia tasak emeki-emeki jaisteko joerari atxiki zion. Azkenik, inflazioa %3,7 hazi zen eta horrek erosteko ahalmena gutxitu zuen. Une hauetan berau mantentzea oso garrantzitsua da ekonomia suspertzeko.

Erresuma Batuak azken hamasei urteko hazkunde daturik txarrena jaso zuen eta %1,4ra mugatu zuen bigarren hiruhilabeteko tasa. Hazkunde horrek amaiera eman dio ia 62 hiruhileko iraun duen aparteko epealdi bati, zeinean BPGren hazkunde tasak beti gainditu baitu %2a. Oraingo motelaldiaren atzean britainiar hazkundearen bultzagile nagusien erritmo galeraren ondorioa da, hots, kontsumoarena, higiezinaren arloarena eta finantza merkatuarena. Kontsumitzaileen konfiantza galerak kalte egin zion kontsumo pribatuari eta higiezinaren arloaren bilakaera txarrak, berriz, inbertsioari, azken bost urteko hazkunde tasarik txikiena jaso baitzuen. Aurreko guztiari gehitzen bazaio kanpo eskariak ere behera egin duela, garbi geratzen da ekonomia horrek amaitutzat jo duela ontasuneko epe luzea. Prezioak aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gehiago hazi ziren. Azkenik, langabezia tasa (apirileko eta maiatzeko datuen arabera) nahiko egonkor mantendu zen.

Espainiako ekonomiak %1,8ko hazkundera jaso zuen bigarren hiruhilekoan, 1996ko lehen hiruhilabetetik inoizko emaitzarik txikiena baita. Tasa hori urtariletik martxora bitartean lortutakoa baino zortzi hamarren txikiagoa da eta 2007ko bigarren hiruhilekoan izan zuena baino 2,1 puntu apalagoa da.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

5. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007			2008	
			II	III	IV	I	II
Azken kontsumoko gastua	4,1	3,8	4,3	3,5	3,3	2,6	1,8
- Familien gastua	3,9	3,4	4,1	3,0	2,9	2,2	1,2
- Administrazioaren gastua	4,6	4,9	5,0	4,8	4,4	3,6	3,8
Kapital finkoaren eraketa gordina	7,1	5,3	5,8	4,6	4,5	2,5	-0,2
- Ekipamendurako ondasunak	10,2	10,0	11,3	8,5	7,1	5,2	2,3
- Eraikuntza	5,9	3,8	4,2	3,3	2,9	0,3	-2,4
- Bestelako ekoizkinak	7,1	3,9	3,7	3,6	6,0	6,0	3,3
- Izakinen aldakuntza (*)	0,2	-0,1	-0,1	-0,1	0,0	0,1	0,1
Nazio eskaria (*)	5,3	4,4	4,9	3,9	3,8	2,8	1,5
Esportazioak	6,7	4,9	3,9	8,2	4,0	4,3	4,1
Inportazioak	10,3	6,2	6,2	7,6	4,9	4,1	2,3
BPG (m.p.)	3,9	3,7	3,9	3,6	3,3	2,6	1,8
Nekazaritza eta arrantza	2,5	3,0	2,5	2,8	2,1	2,7	1,9
Energia	-0,1	0,8	1,1	0,2	1,7	1,1	4,8
Industria	1,9	2,8	3,1	2,9	1,0	-0,1	-2,8
Eraikuntza	5,0	3,5	4,3	3,1	2,8	1,6	-1,9
Zerbitzuak	4,4	4,6	4,6	4,3	4,8	3,9	3,7
Produktuen gaineko zerga garbiak	3,7	0,7	1,4	1,5	-1,5	0,1	-0,3
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	3,5	2,8	2,4	2,4	4,0	4,4	4,6
- Enplegua (**)	3,2	2,9	3,1	2,8	2,3	1,5	0,4

(*) BPGren hazkunderari eginiko ekarpena (**). Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundera (INE).

Etxegintzaren geldotasunak, finantzaziorako baldintza gogorragoek eta prezioen etengabeko gorakadak barne eskaria beherantz bultzatu zuten, BPGri lehen hiruhilekoan 2,8 puntu ematetik bigarren 1,5 puntu bakarrik ekartzera igaro baitzen. Zehazkiago adierazita, kontsumo pribatuak puntu bat galdu zuen, enpleguaren hazkundera gero eta txikiagoa zen eta kontsumitzaileen konfiantza beherantz zihoan testuinguru batean.

Inbertsioaren gehikuntza tasak ere beherakada garrantzitsua jaso zuen, osagai guztiek gutxiago hazi zirelako. Bereziki deigarria da eraikuntzan eginiko inbertsioaren bilakaera, 1996ko bigarren hiruhilekotik inoizko emaitzarik okerrenera erakutsi baitzuen. Hala ere, kanpo arloaren hobekuntzak neurri batean konpentsatu zuen moteltze hura. Hain zuzen ere, lehenengo aldiz 2001. urtetik, kanpo arloak hiru hamarreneko ekarpen positiboa egin zion hazkundeari, zeren eta hala esportazioak nola inportazioak gutxiago hazi baziren ere, azken hauek gehiago murriztu zuten beren gehikuntza tasa.

Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek hazkunde erritmoa galgatu zuten, salbuespen bakarra energiaren arloa izan zelarik. Hain zuzen ere, industriak %2,8ra mugatu zuen bere gehikuntza tasa, kontsumo iraunkorreko eta iragankorreko ondasunen eskariak jaso zuen beherakadaren ondorioz. Eraikuntza, berriz, %-1,9an kokatu zen, eraikuntzan eginiko inbertsioaren bilakaeraren ondorioz, %-6,3 jaitsi baitzen. Beste hiruhileko batez, zerbitzuak onenak izan ziren krisiari aurre egiten eta BPGren hazkundera gaintitu zuten, bai merkatuko adarretan bai merkaturatzen ez direnetan.

Ekonomiaren moteltze nabarmenak bere eragina utzi zuen lan merkatuaren bilakaeran. Izan ere, sortutako enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %0,4ra mugatu zen. Tasa horrek adierazten du 69.400 lanpostu garbi sortu zirela urtebeteko epean. Azpimarratzeko ezaugarrien artean, zerbitzuetako eta industriako enplegua gutxiago hazi izana eta eraikuntzako langabeen kopurua areagotu izana aipatu behar dira.

Prezioen bilakaerari dagokionez, kontsumoko prezioen indizea %4,6ra igo zen, aurreko hiruhilabeteko emaitza bi hamarrenetan gaintituz. Prezioen gorakada bigarren hiruhilekora ere luzatu zen eta aurreko hiru hilabeteetako emaitzaren antzeko balioa erakutsi zuen arren, ekainean %5,0an kokatu zen, 1995eko ekainetik jasotako tasarik gorena baita.

Administrazio publikoek 4.638 milioi euroko defizita jaso zuten ekaina arte, kontabilitate nazionalako terminoetan. Kopuru hori BPGren %0,42 da. Gogoratu behar da iazko epe berean 5.218 milioi euroko superabita lortu zela. Finantzatzeko behar hori espainiar ekonomian gauzatzen ari den moteltzeko joeraren ondorioa da. Petrolio gordinaren garestitzeak enpresen kostuak igoarazi ditu eta mozkinak, berriz, jaitsarazi. Hori dela eta, Gobernuak neurriak hartu ditu enpresen likidezia gehitzeko eta familiei laguntza emateko. Neurri horiek diru sarrerek murriztu dituzte.

Ekoizpena eta eskaria

Eustatek aurtengo bigarren hiruhilabeterako argitaratu dituen hiruhilekako kontuen datuek moteltzeko joera bizkortu dela baieztatu dute. EAEko barne produktu gordinak apaltzeko ibilbidea luzatu du eta %2,6ko urte arteko tasa jaso du, egutegiaren eragina kenduta duen serieran. Beraz, lehen hiruhilekoan baino bost hamarren gutxiago hazi da. Hiruhilabete arteko hazkundea %0,3ra mugatu da bigarren hiruhilekoan, lehenengoan %1,1 izan bazen ere. Portaera horren atzean, barne eskariaren gehikuntza tasa txikiagoa dago, nahiz eta kanpo eskariak hazkundeari eginiko ekarpen hutsalak neurri batean konpentsatu zuen.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

6. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007			2008	
			II	III	IV	I	II
Barneko azken kontsumoa	3,8	3,8	3,7	3,8	3,7	2,9	2,2
- Familien gastua kontsumoan	3,7	3,4	3,7	3,2	3,0	2,4	1,4
- Herri admin. gastua kontsumoan	4,3	5,5	3,9	6,3	6,4	5,1	5,6
Kapital eraketa gordina	5,9	5,5	6,0	5,4	4,0	3,1	3,2
Barne eskaria	4,4	4,4	4,4	4,4	3,9	3,0	2,5
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,2	-0,5	-0,4	-0,7	-0,3	-0,1	0,0
Esportazioak	6,2	7,6	8,5	8,6	7,1	6,9	9,0
Inportazioak	6,1	7,6	8,1	8,9	7,2	6,6	8,2
BPG (m.p.)	4,4	4,1	4,3	4,0	3,8	3,1	2,6
Lehen arloa	-4,4	9,8	15,5	-0,2	14,9	5,3	-0,2
Industria	4,2	4,0	4,8	3,9	2,2	1,8	1,4
Eraikuntza	4,2	4,6	5,0	4,9	3,3	2,4	1,1
Zerbitzuak	4,5	4,2	4,0	4,1	4,6	3,6	3,4
Balio erantsi gordina	4,3	4,2	4,4	4,0	3,9	3,0	2,6
Ekoizkinen zerga garbiak	4,8	3,4	3,6	3,8	3,1	3,5	3,1

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Barne eskariak ekarpen txikiagoa egin dio barne produktu gordinaren hazkundeari eta EAEko familien kontsumoa nabarmen moteldu da, finantza eta higiezinaren merkatuetan gaur egun dagoen ezegonkortasunaren ondorioz, petrolioaren garestitzearengatik, interes tasen igoerarengatik eta igurikimenak okertu direlako. Aipatu diren arrazoi horietako batzuek etxebizitzaren eraikuntzaren moteltzean ere eragin garrantzitsua izan dute. Aurtengo bigarren

hiruhilekoan, gehikuntza tasa berriro jaitsi den arren, industriak eraikuntzak baino bizitasun handiagoa erakutsi zuen. Hala ere, azpimarragarriena zerbitzuek lortu duten bultzada indartsua da.

Ekoizpen jarduera

Eskaintzaren ikuspegitik, gertakari behinenak industriaren nolabaiteko ahultasuna eta eraikuntzaren moteltze bizkorra dira, azken honek puntu bat baino gehiago murriztu baitu bere hazkunde tasa. Aitzitik, alde positiboan merkatukoak ez diren zerbitzuen bizitasuna azpimarratu behar da, bere hazkunde erritmoa egonkortu baitu eta aurreko hiruhilabeteetako emaitzen aldean aldakuntza gutxi erakusten baititu. Osagai hori da salbuespen bakarra, zeren eta ekonomiaren gainontzeko adar guztiek 2007. urtean hasi zen moteltzeko joerari jarraitu baitiote.

Lehen arloko balio erantsi gordina %-0,2 jaitsi zen 2008ko bigarren hiruhilekoan, aurreko epealdian %5,3 gehitu zen bitartean. Petrolioaren eta lehengaien garestitzeak kalte egin dio lehen arloaren bilakaerari.


EAEko ekonomiak 2008ko bigarren hiruhilekoan nozitu zuen erritmo galerak eragin handia izan zuen industrian ere, arlo horretako urte arteko aldakuntza tasa %1,4ra mugatu baitzen. Industria giroaren indizeak (IGI) atzera egin zuen bigarren hiruhilekoan 5,0 puntuko saldo negatibora iritsi arte, 2006. urteko lehen hilabeteetatik daukan baliorik apalena baita. Eustatek egiten duen industria produkzioko indizeak industria adarren ahultasuna gaur eguneko moteltze aldian jasotzen jarraitzen du. Osagai guztiek apaltzeko norabidea marraztu zuten, tamaina handiagokoa edo txikiagokoa, salbuespen bakarra ekipamendurako ondasunen ekoizpena izan zelarik. Urteko bigarren hiruhilekoan, portaera onena zuten osagaiak, hain zuzen ere, ekipamendurako ondasunak eta energia izan ziren. Beste aldetik, kontsumoko ondasunen produkzioak, bereziki kontsumo iragankorren ekoizpenak, aldakuntza tasa oso negatiboa jaso zuen.

Analisia ekoizpen adarretan fokatzen bada, oso bestelako portaerak hautematen dira. Hazkunde handiena lortu zuten industria atalen artean, material elektrikoa eta garraioa, eta argindarra, gasa eta ura nabarmendu behar dira. Hazkunde tasa negatiboak larrugintza eta zapatagintza, egurgintza eta mineral metalikoak eta ez-metalikoak erausteko industrian aurkitu dira.


Ekonomia arloen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasak

5. irudia


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eurostat.

Eraikuntzak duela urtebete bat hasi zuen jarduera erritmoa gutxitzeko joerari jarraipena eman zion. Hiruhilabeteen behin egiten diren ekonomia kontuen arabera, eraikuntzaren balio erantsiaren urte arteko hazkunde tasa %1,1 izan zen bigarren hiruhilekoan, hiru hilabete lehenago lortutako %2,4aren aldean. Lan merkatuaren narriadura, familien konfiantza okertu izana, kredituak emateko orduan dagoen zorrotasuna eta saldu gabe dauden etxebizitzaren kopuru altua dira etxegintzaren bilakaera kaltetzen duten faktoreak. Norabide horretara seinalatzen dute higiezinaren jarduerari buruz eskura dauden adierazleak. Saldutako etxebizitzaren kopurua %-20,0 murriztu da, batez ere bigarren eskuko etxebizitzaren salerosketa izugarri jaitsi delako. Aitzitik, etxe berrien salmentak portaera positiboagoa aurkeztu du. Etxegintzaren jardueran gertatu den beherakada sinatutako hipoteken estatistikan ere igartzen da, hauek ere datu negatiboak jaso dituztelako. Hain zuzen ere, azken hilabeteetan %-20,0aren inguruan egonkortu dira, nahiz eta suspertzeko joera arina erakusten duten.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

7. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007			2008	
			II	III	IV	I	II
Industria							
Balio erantsi gordina	4,2	4,0	4,8	3,9	2,2	1,8	1,4
Industria produkzioaren indizea (*)	5,1	3,8	4,9	3,4	1,8	0,6	-0,5
Industria giroaren indizea	-3,9	3,1	7,3	4,4	1,5	-2,6	-5,0
Ekoizteko ahalmenaren erabilera (%)	80,6	82,1	81,2	84,5	82,0	84,0	83,8
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	0,5	3,3	3,7	3,2	2,6	0,6	0,2
Eraikuntza							
Balio erantsi gordina	4,2	4,6	5,0	4,9	3,3	2,4	1,1
Eskainitako etxebizitzak	12,4	14,2	10,9	14,2	22,2	---	---
Obra berriko baimenak	-16,9	-26,8	-16,0	-37,8	-27,2	-45,6	---
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	3,4	1,1	1,4	0,7	0,3	0,2	-0,8
Zerbitzuak							
Balio erantsi gordina	4,5	4,2	4,0	4,1	4,6	3,6	3,4
Hegazkinen bidezko trafikoa	4,4	11,1	12,0	13,2	9,7	11,9	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	11,3	3,0	6,1	0,0	-0,6	8,6	-8,8
Hoteletako okupazioa	47,9	46,6	48,4	58,4	43,3	38,5	45,1
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	3,1	3,2	3,4	3,0	3,2	2,3	1,8
Enplegua (barne merkataritza indizea)	1,9	2,6	2,7	2,4	2,8	1,2	0,6

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustan, INE, Oficemen eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Obra berrietarako bisatuek atzerakada orokorra pairatu zuten apirilean eta maiatzean, nagusiki eraikinetan eta etxebizitza blokeetan, nahiz eta familia bakarreko etxebizitza atxikien gorakada garrantzitsua besteen emaitza zertxobait arindu zuen. Lan merkatua aztertzean, eraikuntzaren enplegu sorrera zenbaki negatiboetara igaro dela (%-0,8) ikusten da, azken hamaika urteko tasa txarrena delarik. Halaber, Gizarte Segurantzako afiliazioak %-3,0aren inguruko jaitsiera garrantzitsua jaso du arlo horretan hiru hilabete horietan izena emanda dauden pertsonen kopuruan.

Obra zibila, ordea, etxegintzaren narriadura estaltzeko bidean ari da garatzen. Hala eta guztiz ere, herri lanek beherakadaren zati bat konpentsatu dezakeen arren, ezin du etxegintzaren pisu osoa bereganatu.

Zerbitzuek ere gehikuntza tasa txikiagoak jaso zituzten eta EAEko ekonomiak azken hilabeteetan ezagutu duen moteltzean parte hartu dute. Hala ere, jarduera multzo honen moteltzea gainontzeko arloena baino askoz ere txikiagoa izan zen. Are gehiago, beraren urte arteko aldakuntza tasa nahiko altua da oraindik. Hain zuzen ere, sektore osoaren balio erantsia %3,4 hazi zen 2008ko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilabeteko %3,6aren aldean. Hirugarren sektoreak erakutsi zuen bizitasun apalagoa merkaturatzen diren zerbitzuetan gauzatu zen, saltzekoak ez diren zerbitzuen adarrek %6,5eko tasari atxiki baitzioten egonkor. Administrazio publikoari lotutako zerbitzuek eskuratu zuten bultzada handia, neurri batean, datozen hiruhilabeteetan desagertuko diren abaguneko gertakari batzuen ondorioa da, baina ekonomia sustatzeko erabaki baten ondorioa ere bada, jarduera pribatuak ahultasuneko fase bat igarotzen ari diren une batean. Hezkuntza, osasuna eta bestelako zerbitzuak hobetzeko erabakia arlo publikoak ekonomiaren lehiakortasuna areagotzeko asmoari egiten dion ekarpenaren zati bat da.

Merkaturatzen diren zerbitzuen jardueraz eskura dauden adierazle berrien informazioak hazkunde erritmoak 2008ko bigarren hiruhilabeteen indarra galdu zuela iradokitzen du. Merkataritzako establezimenduetan saldutakoaren datuek, hegazkinez garraiatutako bidaiarien kopuruak, eta hoteletan igarotako gualdiek eta betetze mailak argi adierazten dute saltzekoak diren zerbitzuetako adar horiek jasan duten motelaldia. Enpleguaren adierazleek, hala nola Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden zerbitzuetako langileen kopuruak, bigarren hiruhilekoan emaitza onak aurkeztu zituzten sektore horretan sortutako lanpostu berriez, nahiz eta gehikuntza tasa gutxitzeko joera garbia dagoen.

Eskariaren osagaiak

Eskariaren ikuspegitik, BPGren hazkundera barne eskarian oinarritu da, kanpo eskariak ez baitu inolako ekarpenik egin. Barruko eskaria bost hamarren gutxiago hazi zen 2008ko bigarren hiruhilekoan, kontsumo pribatuan eginiko gastua nozitzen ari den motelaldi garrantzitsuen ondorioz. Familien kontsumoak izan zuen ahultasunaren zati bat arlo publikoak konpentsatu zuen, beraren kontsumoa nabarmen areagotu baita ekonomiaren apaltzearen lehen zantzuak agertu zirenetik. Inbertsioari dagokionez, etxebizitzetan eginiko inbertsioa asko okertu bada ere, kapital eraketa gordinaren guttizkoak hobekuntza txikia lortu zuen apiriletik ekainera doan epealdian.


Barneko azken kontsumoan eginiko gastuak hazkunde tasa gutxitzeko joera erakutsi zuen bigarren hiruhilekoan. Familien kontsumoak eragin zuen gehikuntza tasaren jaitsiera, kontsumo publikoan eginiko gastuak gorakada azpimarragarria lortu zuen bitartean. Hain zuzen ere, %5,6ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen. Horiek horrela, administrazio publikoetako kontsumoa da barne eskariaren osagairik dinamikoena eta azken gastuaren apaltze handia galgatzeko balio du. Kontsumo publikoaren portaera horren atzean, eskari pribatuak gaur egun pairatzen duen ahultasunaren aurrean administrazioak paper bultzagileagoa betetzeko interesa dago.

EAEko familien kontsumoa, urratsez urrats, hazkunde erritmoa apalduz joan da eta 2008ko bigarren hiruhilekoan gehikuntza tasa %1,4ean kokatu zen, aurtengo lehen hiru hilabeteetan %2,4 eta 2007. urtean %3,4 hazi zen bitartean. Agregatu horretarako eta bigarren hiruhilekorako eskura dauden adierazleek sendotasuna galtzen ari dela iradokitzen dute. Arrazoen artean, interes tasen gehikuntza, familien konfiantza okertu izana eta erosteko ahalmenaren galera aipatu behar dira. Baina egon badaude kontsumitzaileak kezkatzen dituen hainbat faktore gehiago, hala nola lan merkatuaren bilakaera apala, sortutako lanpostu berrien kopurua gero eta txikiagoa delako, kontsumoko prezioen gorakada eta nazioarteko finantza krisiak eragin duen ziurgabetasuna. Gastu pribatuaren hazkunde txikiago horrek familien finantza kontuetan dagoen desoreka, kontsumitzaileen gehiegizko zorpetzeak sortua, zuzentzen lagunduko du. Izan ere, une hauetan kontsumo pribatuaren ahultasunaren ifrentzua zuhurtziazko aurrezkiaren suspertzea da.


Eskariaren osagaien bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

6. irudia


Kontsumo pribatua




Kontsumo publikoa




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

Kapitaleko eraketa gordinak bizkortze arin bat erakutsi zuen eta hazkunde tasa %3,2ra igo zuen 2008ko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilabeterako estimatu zen emaitza baino hamarren bat handiagoa delarik. Agregatu osoaren zenbatekoek inbertsioaren osagaien portaera kontrajarriak ezkututzen dituzte. Alde batetik, eraikuntzan eginiko inbertsioak, eta bereziki etxegintzan eginikoak, indarra galtzen jarraitu zuen eta hiruhileko askotan hazkunde bizia lortu ondoren beharrezko doikuntza ari da jasaten. Sektorearen jarduera neurtzen duten adierazleek ahultasun hori egiaztatzen dute. Beste aldetik, ekipamenduan eginiko inbertsioak hobekuntza txikia lortu zuen bigarren hiruhilekoan, ondasun mota horren inportazioek eta EAEko industriaren ekoizpenak iradokitzen dutenez. Enpresei ematen zaizkien kredituak, gaur eguneko finantza krisiaren ondorioz, murriztu izanak badirudi kalte handiagoa egin dietela higiezin eta eraikuntza arloetako enpresei industria sektorekoei baino. EAEko enpresen egoera ona denez, ekonomiaren gaur eguneko motelaldiaren aurrean kalte gutxiago jasotzea litekeena da. Aipatu diren bi inbertsio multzo horiez gain, egon badago ekoizpena hobetzen laguntzen duen beste talde bat, prestakuntza, prozeduren hobekuntza, ikerketa eta abar barnean hartzen duena. Talde hori gero eta pisu gehiago ari da irabazten agregatuaren barnean eta hazkundeari eusten laguntzen du. Euskal Autonomia Erkidegorako hiruhilabetekako informaziorik ez badago ere, INEk Estatu osorako eskaini dituen datuek norabide hori seinalatzen dute.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

8. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007			2008	
			II	III	IV	I	II
Kontsumo pribatua							
Hiruhilekako kontuen estimazioa	3,7	3,4	3,7	3,2	3,0	2,4	1,4
BMI txikizkaria	1,8	1,4	0,3	1,5	0,4	-2,8	-0,4
Azalera handiko merkataritza indizea(*)	1,9	-0,3	0,6	-0,8	-2,4	-4,3	-5,3
Landunak txikizkarian	2,1	2,7	2,5	2,7	2,9	1,0	0,4
Automobilen matrikulazioa (*)	-2,2	-0,8	-2,7	0,8	2,4	-16,7	-18,0
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	96,3	96,0	101,0	96,0	88,0	92,0	80,0
Kapital eraketa gordina							
Hiruhilekako kontuen estimazioa	5,9	5,5	6,0	5,4	4,0	3,1	3,2
IPI ekipamendua EAE (*)	8,2	7,4	9,0	6,5	3,3	1,0	0,6
IPI ekipamendua Estatu (*)	7,9	5,9	5,9	5,6	3,5	1,4	-0,5
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	6,1	18,4	10,7	16,6	31,0	18,9	22,5
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-2,3	0,0	1,4	-0,8	-1,4	-30,2	-33,7

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.


Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

Merkataritzak munduko ekonomiaren bultzagile nagusietako bat izaten jarraitu du. Ekonomia eremu gehienetan moteltzeko joera hedatu da eta prezioak nabarmen areagotu dira, herrialde gehienetan kontsumoa murriztuz. Hala eta guztiz ere, nazioarteko merkataritzaren hazkunde erritmoa nahiko egonkor mantendu zen, neurri handi batean, garapen bidean dauden ekonomien hazkundeari esker.


Ondasunen esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

7. Irudia


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Japonia



Iturria: ELGE, Eurostat, AEBetako Merkataritza Saila eta Japoniako Finantza Ministerioa.

Txinako kontsumoaren bultzada indartsuak, aurtengo hilabeteetan %20tik gora areagotu baita, eta, besteak beste, Errusiaren, Brasilen eta Indiaren bilakaera onak bultzada handia eman zioten nazioarteko merkataritzari eta horrek mesedea bereziki Europako eta AEBetako esportazioei egin zien, halako moldez ezen munduko desorekak zertxobait zuzentzen lagundu baitzuen. Hain zuzen ere, AEBetako merkataritza defizitak behera egin zuen esportazioei esker, dolarraren balio galera garrantzitsuak suspertuta. Halaber, Europar Batasunak ondasunetan eta zerbitzuetan lortu zuen superabitak ia bikoiztu zuen aurreko hiruhilabeteko emaitza, 16.000 milioi eurora iritsita, Eurostaten arabera.

EAEko ekonomia ere nazioarteko testuinguru positibo horretaz baliatu zen, esportazioek erakutsi zuten hazkunde biziak agerian uzten duenez. Kanpoan saldutakoak erosketak konpentsatu zituen. Hain zuzen ere, atzerrira esportatutakoaren guztizkoa %19,6 areagotu zen termino nominaletan, 2006ko lehen hiruhilekotik inoizko gorakadarik handiena delarik, 5.717 milioi euroak gaindituta, 2007ko bigarren hiruhilekoan bildutako 4.772 milioien aldean. Bultzada horren zati bat kanpoan merkatu berriak bilatzearen ondorioa da, barneko merkaturak, eta bereziki Estatuko gainontzeko erkidegoetan, salmentek bizitasuna galdu duten une batean. Beste aldetik, inportazioak ere gorakada nabarmena jaso zuten eta %16,5 hazi ziren, azken urteetan izandako bilakaerarekin bat eginez. Esportazioen eta inportazioen emaitzak konbinatuta, atzerriarekiko merkataritza saldoa positiboa izan zen eta 35 milioi euroak gainditu zituen.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ATZERRIAN

9. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-II
	2006	2007	2007			2008		
			II	III	IV	I	II	
Guztira	16,4	14,1	16,6	17,2	13,6	5,0	19,6	5.717.601
Ez-energetikoak	14,1	14,8	17,8	17,6	13,5	3,1	16,2	5.135.965
Ekoizkin energetikoak	51,4	6,4	3,1	13,1	14,2	28,5	61,3	581.636

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2007koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioak Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Energiaren salerosketak kontuan hartu gabe eta petrolioaren garestitzeak saldoaren guztizkoan izan zezakeen eragina kenduta, energiakoak ez diren esportazioak %16,2 hazi ziren bigarren hiruhilekoan. Beraz, aurreko hiruhilekoan nozitu zuen murrizketa handiaren ondoren, azken hiruhilekoetan ohikoak ziren gehikuntza tasa bizietara itzuli da. Energiatz bestelako

inportazioek, ordea, bilakaera motelagoa erakutsi zuten eta beren hazkunde tasa %4,9ra mugatu zuten. Beraz, energiako ekoizkinak kenduta, merkataritza superabita 1.585 milioitik gorakoa izan zen, inoizko handiena delarik.

ONDASUNEN INPORTAZIOAK ATZERRITIK

10. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-II
	2006	2007	2007			2008		
			II	III	IV	I	II	
Guztira	20,2	9,4	12,7	5,9	13,6	18,5	16,5	5.682.258
Ez-energetikoak	14,6	17,1	21,7	15,2	12,2	7,1	4,9	3.550.437
Ekoizkin energetikoak	32,9	-5,2	-3,5	-9,9	17,0	49,0	42,9	2.131.821

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2007koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.


EAEko merkataritzak lortu duen bilakaera oso positiboa izan arren, enpresariak eskari zorroaren bilakaeraz adierazi duten iritzia ez da bat ere baikorra, 2006ko hasieratik inoizko emaitzarik txarrenak bildu zirelako. Datu horiek eragina dute ekoizleen konfiantzan, gero eta ezkorragoak baitira, ekonomia atzeraldian sartu daitekeelako beldurrarengatik. Horixe da industria giroaren indizearen beherakadak adierazten duena. Deigarria bada ere, espainiar merkatutik iritsitako eskariak nolabaiteko sendotasuna erakusten dute oraindik eta balio positibotan kokatzen dira, atzeritik eginikoek ez bezala. Adierazle hauek datozen hilabeteetan izango duten bilakaera aztertu beharko da, aurtengo bigarren hiruhilekoan merkataritzan lortu ziren emaitza onak ekonomian ezarri den ezkortasuna arintzeko gai ote diren aztertzeko.

Esportazioak ekoizkin multzoka aztertzen badira, agerian gelditzen da talde nagusi guztiek sendotasun handia erakutsi zutela. Guztien artean, energia arloa nabarmendu zen, hazkunde tasa %61,3 igo zelako, bost hiruhilekoz jarraian gehikuntza tasa bizkortuz aritu zelarik. Metal arruntek eta beren manufaktura lehenera hiruhilekoan izan zuten emaitza txarra atzean utzi zuten, burdin eta aluminio galdaketaren salmenten gorakadari esker. Ekipamendurako ondasunek ohiko bizitasuna berreskuratu zuten, bai garraio materialeko salmentak bai makinak eta tresnenak asko igo zirelako, hurrenez hurren %13,8 eta %22,1 areagotu baitziren. Kontuan hartzen ari den epealdian hazkunde tasa txikiak jaso zituzten esportazio taldeak plastikoarena eta, neurri txikiagoan, arlo kimikoa eta papergintza izan ziren. Lehenengoak ezin izan zuen aurreko hiruhilabeteko susperraldiari eutsi eta berriro jaitsi zuen salmenta. Beste bi taldeek gehikuntza tasa positiboa lortu zuten, baina oso txikiak.


EAEko industriaren eskari zorroa(*)

8. irudia

Industria giroaren indizea



Industria eskari zorroa guztira



(*) Enpresarien erantzunen saldo garbia (muturretako chunekoen arteko aldea).
Iturria: Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerioa.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ATZERRIAN

11. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-II
	2006	2007	2007			2008		
			II	III	IV	I	II	
Guztira	16,4	14,1	16,6	17,2	13,6	5,0	19,6	5.717.601
Nekazaritzakoak	10,2	18,6	23,6	7,2	28,7	8,5	5,6	171.748
Energia ekoizkinak	51,4	6,4	3,1	13,1	14,2	28,5	61,3	581.636
Kimikoak	0,1	-6,2	1,9	-1,1	-16,8	14,2	0,9	111.269
Kautxua eta plastikoa	40,5	6,4	18,7	7,5	-10,2	1,3	-5,6	319.887
Papera	5,5	11,2	16,8	10,8	7,9	3,1	0,4	130.599
Metalak eta manufakturak	17,4	23,3	25,6	39,0	10,9	-1,0	27,2	1.734.409
Ekipamendu ondasunak	10,3	12,4	13,4	9,7	21,8	6,3	17,8	2.385.268
- Makinak eta tresnak	10,6	13,1	12,6	13,3	19,5	9,5	22,1	1.169.004
- Garraio materiala	10,0	11,8	14,0	6,4	24,0	3,6	13,8	1.216.264
Bestelako manufakturak	13,4	14,2	18,5	13,5	4,2	-0,8	-1,1	248.887
Sailkatu gabeak	14,5	12,9	23,5	41,1	27,8	-28,4	-9,9	33.897

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2007koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

EAEko barne eskariak izan zuen moteltzearen ondorioz, energiaz bestelako inportazioek berriro gutxitu zuten beren hazkunde erritmoa. Goranzko aldakuntza tasa handienak garraio materialaren erosketari egokitu zitzaizkion, laugarren hiruhilekoz jarraian, gehikuntza tasa apartak lortu zituelako. Automobilaren atalak eragin zuen emaitza hori, neurri batean piezen horniduraren jatorri geografikoan aldaketak egin direlako. Orobat, arlo kimikoak ere emaitza bikainak jaso zituen, ia %50eko gehikuntza tasa, eta baita energiak ere, oso tasa handiak bildu baitzituen berriro. Erosketen emaitza apalenak nekazaritzako ekoizketan, papergintzan, tasa negatiboak jaso zituelako, eta metal arruntak eta beren manufakturetan gauzatu ziren. Azken sektore horretako ekoizkinen kanpoko erosketek oso ahul jarraitu zuten, hala aluminioko eta nikelko manufakturengatik, %40 baino gehiago egin baitzuten behera, nola burdinaren galdaketarengatik. Azken honen jaitiera ez zen horren tamaina handikoa, baina arantzel atalaren barruan pisu handiena duenez, erabakigarria izan zen taldearen emaitzan.

ONDASUNEN INPORTAZIOAK ATZERRITIK

12. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-II
	2006	2007	2007			2008		
			II	III	IV	I	II	
Guztira	20,2	9,4	12,7	5,9	13,6	18,5	16,5	5.682.258
Nekazaritzakoak	-0,1	5,0	1,6	5,1	10,5	11,5	2,6	215.020
Energia ekoizkinak	32,9	-5,2	-3,5	-9,9	17,0	49,0	42,9	2.131.821
Kimikoak	20,2	-1,8	-15,7	10,5	-5,8	12,2	49,3	165.037
Kautxua eta plastikoa	23,2	17,6	34,2	13,9	11,1	2,7	6,6	244.387
Papera	11,3	9,7	14,0	11,7	12,1	0,5	-6,7	100.094
Metalak eta manufakturak	27,1	21,6	38,6	17,7	-2,2	-0,3	-5,3	1.436.385
Ekipamendu ondasunak	6,1	18,4	10,7	16,6	31,0	18,9	22,5	1.137.644
- Makinak eta tresnak	12,6	9,9	14,3	14,8	-4,1	5,3	9,0	705.335
- Garraio materiala	-5,4	35,8	3,2	20,7	112,2	44,7	53,5	432.309
Bestelako manufakturak	9,0	15,4	16,2	13,6	15,4	-1,8	-11,3	246.295
Sailkatu gabeak	-52,1	-9,8	-26,9	0,3	6,8	32,5	34,2	5.576

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2007koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Geografiaren ikuspegitik, energiaz bestelako EAEko esportazioak bereziki Europar Batasuneko herrialdeetara bideratu ziren berriro. Hain zuzen ere, erakunde horretako bazkideei eginiko salmentak %15,5 areagotu ziren, Alemanian, Frantzia eta Italian lortutako bi zenbakiko gehikuntzak azpimarratu behar direlarik, urte hasieran izan zuten makalaldia atzean utzita. ELGE erakundeko gainontzeko herrialdeetan saldutakoa gutxiago hazi zen. Hala

ere, eremu horretan lortutako emaitza garrantzitsua izan zen, bost hiruhilekoz baino gehiago jarraian merkatu kuota galtzen ibili ondoren, estatubatuar merkatuaren zati bat berreskuratu zelako.

EAE-K ATZERRIAN SALDUTAKO ONDASUN EZ-ENERGETIKOEN HELBURUA

13. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-II
	2006	2007	2007			2008		
			II	III	IV	I	II	
Guztira	14,1	14,8	17,8	17,6	13,5	3,1	16,2	5.135.965
ELGE	14,6	9,9	14,8	7,2	6,2	0,3	14,2	4.159.070
Eurogunea	16,4	10,4	17,1	6,9	3,0	0,7	17,9	3.094.162
Europako kide berriak	26,5	42,3	29,1	17,1	27,8	26,6	8,7	245.484
Europar Batasuna 25	15,8	10,8	17,9	6,7	6,1	2,7	15,5	3.740.827
Frantzia	10,4	6,8	12,3	4,9	2,8	0,0	17,1	986.470
Alemania	23,5	13,9	18,0	2,5	10,0	-2,1	26,5	927.943
Erresuma Batua	3,4	13,5	19,1	-1,3	25,7	-1,3	1,4	319.574
Italia	24,8	-2,7	3,4	-1,7	-11,0	-5,6	11,0	406.515
ELGEko besteak (1)	11,8	9,8	4,7	12,8	13,4	-3,4	5,7	663.727
AEB	16,3	-8,4	-26,0	-4,0	-2,0	-16,0	12,1	163.150
Japonia	-28,3	-1,4	40,7	28,4	-42,5	47,7	14,8	16.895
ELGETik kanpokoak	12,0	38,9	34,6	72,7	46,8	17,2	25,5	976.895
Errusia	54,9	41,3	39,8	60,6	9,9	54,7	76,5	66.397
Txina	28,1	15,5	29,1	29,4	29,7	44,2	55,6	112.037
Brasil	-14,1	27,9	81,6	35,0	-11,4	16,4	17,4	91.942
Munduko besteak	12,1	42,9	30,5	82,5	59,5	11,8	19,6	706.519

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2007ko datuak behin-behinekoak dira. (1) ELGEkoak EB-15ak izan ezik.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

ELGETik kanpoko eremuan, emaitzak ere oso onak izan ziren eta hazkunde tasak garrantzitsuak. Hala ere, merkatu horietako emaitzak ez dira Europar Batasunean lortutakoak bezain erabakigarriak, energiaz bestelako esportazioen guztizkoan herrialde horietako pisua oraindik nahiko txikia delako. Horiek horrela, eremu horretako herrialde nagusietan salmentak areagotu ziren, bereziki Errusian eginikoak, oso gehikuntza handia lortu zutelako. Horrek iradokitzen du petrolioia ekoizten duten herrialdeek, lehengaien garestitzearen ondorioz lortu duten diru sarrerei esker, inportatzeko joera areagotu dutela.

Esportazioen joeratik aldenduta, inportazioek moteltzeko joera garbia erakutsi zuten ekonomia eremu guztietan, salbuespen bakarra Europar Batasuna delarik. Eremu horretan, herrialde kide berrietan eta, oso bereziki, Alemanian eta Frantzian eginiko salmentek Italian eta Erresuma Batuan baldintza konpentsatu zuten, azken bi herrialdeetan gutxiago erosi baitzen. Kasu deigarriena Erresuma Batua da, zeren dagoeneko sei hiruileko jarraian murriztu dira handik ekarritako inportazioak.

ELGEren gainontzeko herrialdeetan, euroak dolarraren aldean lortu duen sendotasuna, estatubatuar ekoizkinak erosteko joera sustatu baitzuen, ez da nahiko izan AEBetatik ekarritako inportazioen erritmoari eusteko eta, hamabi hilabetez hazkunde tasa gutxituz joan ondoren, aurtengo bigarren hiruilekoan urte arteko tasa negatiboa izan da. Aitzitik, Japoniak, hainbat hilabetez beheratu ondoren, Euskadin eginiko salmentak areagotu ditu, nahiz eta igoera nahiko txikia izan zen. ELGE erakundetik kanpo, herrialde guztiek gutxitu zituzten salmentak, nahiz eta beherakada handienak Brasilen eta Errusian gertatu ziren.

EAE-K ATZERRIAN EROSITAKO ONDASUN EZ-ENERGETIKOEN JATORRIA

14. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila €
	2006	2007	2007			2008		2008-II
			II	III	IV	I	II	
Guztira	14,6	17,1	21,7	15,2	12,2	7,1	4,9	3.550.437
ELGE	11,4	16,8	19,4	12,7	18,0	7,7	6,2	2.658.512
Eurogunea	12,3	19,0	20,5	13,9	23,2	11,2	11,6	2.048.401
Europako kide berriak	27,3	44,9	17,5	15,0	14,4	2,9	15,8	113.116
Europar Batasuna 25	10,9	14,9	16,4	10,6	16,8	7,3	7,7	2.397.522
Frantzia	14,9	11,2	13,8	7,4	5,7	8,7	9,8	528.761
Alemania	3,3	38,4	34,5	28,4	82,3	30,8	27,1	679.801
Erresuma Batua	2,6	-13,3	-10,4	-13,6	-29,2	-24,0	-22,3	176.485
Italia	9,6	18,2	24,0	19,2	6,9	0,1	-2,9	330.677
ELGEko besteak (1)	17,5	32,6	40,0	29,1	25,2	9,5	-0,1	374.106
AEB	30,6	49,4	65,9	64,3	47,1	30,1	-5,4	91.949
Japonia	-1,3	7,5	18,7	19,8	-5,9	-3,4	1,8	47.080
ELGETik kanpokoak	25,6	18,0	28,9	22,3	-5,1	5,3	1,2	891.925
Errusia	17,5	10,4	24,3	8,3	-10,8	11,0	-2,0	150.787
Txina	38,1	45,9	56,6	49,0	29,1	20,5	1,0	258.019
Brasil	12,4	-14,5	1,0	33,8	-64,4	0,1	-21,7	39.520
Munduko besteak	24,0	8,2	21,5	8,0	-15,4	-5,0	5,1	443.599

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2007ko datuak behin-behinekoak dira. (1) ELGEkoak EB-15ak izan ezik.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Lan merkatua

2008ko bigarren hiruhilekoan, lan merkatua aztertzeko erabiltzen diren adierazle guztiek, salbuespena BJA inkesta delarik, enplegu sorreraren estimazioa apaldu zuten, ekonomia osoaren hazkundera ikusi den moteltzeko joera garbiarekin bat eginez. Hala eta guztiz ere, lanpostu gutxiago sortu badira ere, azpimarratu behar da EAEko ekonomiak enplegu asko sortzeko gai izan zela. Bilakaera oraindik ona den seinale, Gizarte Segurantzako afiliatuen batez besteko kopurua da, ekainean berriro inoizko kopururik handiena jaso baitzuen berriro. Orobat, langabezia tasak enplegu beteko mailetan jarraitu zuen. Bi emaitza horiek garbi adierazten dute EAEko ekonomia espainiarra baino hobeto ari dela erantzuten gaur eguneko motelaldiaren aurrean, sektoreen egitura orekatuagoa duelako eta etxegintzarekiko mendetasun txikiagoa duelako.

ENPLEGUAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

15. TAULA


Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007			2008	
			II	III	IV	I	II
Landunak (BJA inkesta)	1,4	1,1	1,1	1,1	0,3	1,0	1,9
Lanpostuak (hiruhilekako kontuak)	2,2	2,8	3,0	2,7	2,7	1,7	1,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,3	2,7	2,8	2,7	2,5	2,1	1,8
Langabeak (BJA inkesta)	-28,9	-19,7	-17,7	-14,9	-8,5	-1,5	4,7
Langabeak (INEM)	-4,7	-6,4	-8,2	-4,5	-2,6	2,3	8,5
Langabezia tasa (BJA inkesta)	%4,1	%3,3	%3,4	%3,1	%3,1	%3,3	%3,5


Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INEM.

Zehazkiago adierazita, estatistika guztiek enplegu sorreraz eskaini zituzten tasak aurreko hiruhilabeteetan baino antzekoagoak izan ziren. Hain zuzen ere, estimatutako hazkunde tasarik altuenaren (BJA inkestaren %1,9) eta txikienaren (BAI inkestaren %1,1) arteko aldea ez zen puntu batera iritsi. Lehenago ere aurreratu zenez, Gizarte Segurantzako afiliazioak eskaini duen datua azpimarratu behar da, oraindik gehikuntza tasa garrantzitsuak (%1,8) jaso dituelako. Administrazioaren erregistro horrek Euskadin jaso zuen emaitza ona are nabarmenagoa da Estatuko bilakaerarekin alderatzen bada, bigarren hiruhilabetearen amaieran urte arteko lehen beherakadak ezagutu zirelako. Hirugarren hiruhilabeterako dagoeneko argitaratu diren datuek jaitsiera areagotu dela adierazten dute. Eraikuntzaren pisu handiagoa dago portaera ezberdin horren atzean.


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Eustatek hiruhilabeteen behin argitaratzen dituen kontuetako datuen arabera, ekonomiaren apaltzea sektore guztietan hasi da hautematen, baina oraindik bigarren hiruhilekoan gai izan ziren enplegua sortzeko, salbuespen bakarra eraikuntza izan zelarik. Hain zuzen ere, industriak bizi zuen moteltzea familien azken kontsumora eta eraikuntzaren bitarteko kontsumora zuzendutako ondasunen eskariaren jaitsieraren ondorioa da. Eraikuntzak, berriz, etxegintzan eta bestelako eraikinetan egiten diren proiektuen beherakada garrantzitsua nozitu zuen eta, horren ondorioz, lanpostuak galdu zituen, lehenengo aldiz 1996. urtetik. Azkenik, zerbitzuek ere lanpostuak sortzeko ahalmena gutxitu zuten, baina oraindik beste bi sektoreek baino tasa altuagoa jaso zuten.

Enpleguaren doikuntza horri ekonomiaren arlo guztien balio erantsiaren murrizketa bat gehitu zitzaion, nahiz eta enpleguarena baino txikiagoa izan zen. Horiek horrela, ekoizkortasunaren irabazia aurreko hiruhilekoetakoa baino handiagoa izan zen eta %1,5ean kokatu. Ekoizkortasun irabazi handienak industrian lortu ohi diren arren, aurtengo lehen sei hilabeteetan arlo guztien eraginkortasuneko hobekuntzak gero eta bateratuagoak direla hautematen da. Une hauetan, irabazi handienak eraikuntzak lortu ditu, neurri batean galdutako enpleguari esker. Zerbitzuek ere irabazi nabarmenak jaso dituzte, industriak lortu dituenak baino handiagoak direlarik. Industrian, badirudi ekoizpenaren moteltzeari langileen kopurua murriztu gabe egin diotela aurre, etorkizunari buruzko ziurgabetasunak laster argituko direlakoan.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

16. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007			2008	
			II	III	IV	I	II
Enplegua guztira	2,2	2,8	3,0	2,7	2,7	1,7	1,1
<i>Ekoizkortasuna guztira</i>	2,1	1,3	1,3	1,3	1,1	1,4	1,5
Enplegua lehen arloan	-3,5	-4,0	-5,9	-3,6	0,0	2,9	3,4
<i>Ekoizkortasuna lehen arloan</i>	-0,9	14,4	22,7	3,5	14,8	2,3	-3,5
Enplegua industrian	0,5	3,3	3,7	3,2	2,6	0,6	0,2
<i>Ekoizkortasuna industrian</i>	3,7	0,7	1,0	0,6	-0,4	1,3	1,3
Enplegua eraikuntzan	3,4	1,1	1,4	0,7	0,3	0,2	-0,8
<i>Ekoizkortasuna eraikuntzan</i>	0,8	3,5	3,6	4,2	3,0	2,3	1,9
Enplegua zerbitzuetan	3,1	3,2	3,4	3,0	3,2	2,3	1,8
<i>Ekoizkortasuna zerbitzuetan</i>	1,4	1,0	0,6	1,0	1,4	1,3	1,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

BJA inkestaren arabera, enplegua 18.400 lanpostutan areagotu zen iazko bigarren hiruhilabeteko kopuruaren aldean, enplegu tasa azken urtebetean 1,5 puntu igo zelarik, iazko %66,3tik aurtengo %67,8ra. Beraz, 2010 urterako Europak ezarri zuen %70eko enplegu tasa lortzeko helburutik bi puntura bakarrik dago. Hobekuntza horren atzean, emakumeen bilakaera dago, lana duten gizonezkoen kopurua bere horretan mantendu zelako (%0,0). Aitzitik, emakume landunek azken hiruhilabeteetako hazkunde tasa handiena (%4,7) lortu zuten, beraien enplegu tasa, Lisboako Estrategian ezarritako moduan neurtuta, %59,1ean kokatu zelarik. Hori dela eta, emakumeentzat ezarri zen helburua (%60ra iristea) dagoeneko ia lortuta dago.

Adinaren araberako analisi batean, biztanleriaren piramidea da enplegu taldeen aldakuntzaren erantzule nagusia, zeren eta biztanleriaren zahartzeak enpleguaren hazkundera adin handieneko (45 urtetik gorakoak) taldean gauzatzea ahalbidetzen baitu. Aitzitik, gero eta gazte gutxiago dagoenez, beraien taldeak hazkunde tasa txikiak edo beherakadak jasotzen ditu. Bilakaera horiek talde bakoitzaren biztanleriarekin haztatzen direnean eta enplegu tasak kalkulatzeko direnean, hobekuntzak bitarteko taldean (25 eta 44 urte bitartekoa) gauzatu zirela egiaztatzen da, muturretako adinetan lana dutenen proportzioa zertxobait jaitsi zen bitartean. Horiek horrela, kezkatzeko modukoak dira bi kolektibo horietako enplegu tasa apalak, Euroguneko gainontzeko eremuan daudenak baino txikiagoak direlako.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

17. TAULA

Ehunekoak

	2006	2007	2007				2008
			I	II	III	IV	I
Partaidetza tasa guztira	54,6	54,6	54,0	54,9	55,1	55,1	55,1
- Gizonak	64,4	65,0	64,6	65,5	64,9	64,6	64,5
- Emakumeak	45,2	44,9	44,0	44,8	45,8	46,1	46,2
- 16 urtetik 24ra	34,9	33,5	32,3	35,1	33,9	35,8	35,6
- 25 urtetik 44ra	85,4	85,9	85,4	86,1	86,4	85,9	86,4
- 45 urte eta gehiago	36,6	36,7	36,0	36,8	37,3	37,6	37,3
Enplegu tasa guztira	52,3	52,9	52,2	53,2	53,4	53,3	53,2
- Gizonak	62,0	63,0	62,4	63,8	63,1	62,8	62,3
- Emakumeak	43,2	43,3	42,5	43,2	44,2	44,3	44,5
- 16 urtetik 24ra	32,1	30,9	30,0	32,6	31,5	32,6	32,1
- 25 urtetik 44ra	81,3	82,8	81,9	83,3	83,2	82,8	83,1
- 45 urte eta gehiago	35,8	36,0	35,4	36,0	36,7	36,9	36,6
Langabezia tasa guztira	4,1	3,3	3,4	3,1	3,1	3,3	3,5
- Gizonak	3,7	3,0	3,4	2,7	2,8	2,9	3,5
- Emakumeak	4,5	3,6	3,4	3,6	3,6	4,0	3,6
- 16 urtetik 24ra	8,1	7,6	7,0	7,2	7,1	8,8	9,9
- 25 urtetik 44ra	4,7	3,7	4,1	3,3	3,7	3,7	3,8
- 45 urte eta gehiago	2,2	1,8	1,8	2,0	1,5	1,9	2,0

Iturria: BJA (Eustat).

Enpleguaren sorrera txikiagoa izan zen arren lanpostu baten bila hasi ziren eskatzaileak ez ziren desanimatu eta lan merkatuan parte hartzen duen biztanleria %2,0 areagotu zen, azken bost urteko tasarik altuena delarik. Gehikuntza horren atzean, emakumeak lan merkatuan sartzeko aspaldi erakutsi zuen borondatea dago, beraien kopurua %4,8 igo baitzen, partaidetza

tasa %46,2ra igoaraziz. Gorakada horri esker gizonezkoen tasarekin zegoen tartea gutxitu zen, beraien biztanleriak ez baitzuen inolako gehikuntzarik jaso bigarren hiruhilekoan (%0,0).

LAN MERKATUAREN ALDAGAI NAGUSIAK

18. TAULA

Mila lagunekoak eta urte arteko tasak


	II-2008	2007			2008	
		II	III	IV	I	II
Parte hartzaileak	1006,3	0,3	0,5	0,0	0,9	2,0
- Gizonak	572,7	1,7	0,9	-0,1	-0,3	0,0
- Emakumeak	433,5	-1,6	-0,1	0,1	2,5	4,8
Landunak	970,8	1,1	1,1	0,3	1,0	1,9
- Gizonak	552,9	2,2	1,5	0,1	0,1	0,0
- Emakumeak	417,9	-0,5	0,5	0,5	2,1	4,7
Langabeak	35,5	-17,7	-14,9	-8,5	-1,5	4,7
- Gizonak	19,8	-10,9	-16,7	-8,0	-12,3	0,5
- Emakumeak	15,7	-25,7	-13,1	-8,3	11,7	10,6
Langabezia tasa	---	3,4	3,1	3,1	3,3	3,5

Iturria: BJA (Eustat).

Biztanleria parte hartzailea asko igo zenez eta sortutako lanpostu berriak gutxiago izan zirenez, lanik gabe zeuden pertsonen kopuruak gora egin zuen nabarmen, 35.500 lagunetara iritsi arte. Zenbateko horrek adierazten du langabeen kopurua %4,7 areagotu zela urte arteko aldakuntza tasan, azken urteetan lortu ziren etengabeko beherakadak atzean utzita. Hala ere, lanik gabeko pertsonen kopurua nabarmen igo bazen ere, langabezia tasak oraindik ez du gaintitu %3,5eko langa. Beraz, Europan langabeziak gutxien kaltetu duen lurraldeetako bat da eta langabezia tasa Europar Batasunaren batez bestearen oso azpitik dago (2008ko lehen bi hiruhilekoetan %6,8 zen tasa hura Europan). Langabeziaren zenbakiak okertu direla INEMek enplegurako sistema publikoan biltzen dituen datuen bidez egiaztatu du, epealdi horretan urte arteko aldakuntza tasa %8,6 izan baitzen estatistika horretan. Tasa hori handia izan arren, gogoratu behar da erakunde horren arabera Estatuko batez bestean langabeen kopurua %15,5 areagotu dela. Beraz, estatistika horretan ere lurralde baten eta bestearen artean alde nabarmenak daudela hautematen da. Bereziki kezagarria da langabeziaren bilakaera atzeritarren artean, eta lan egiteko aukera handiak lortu badituzte ere – Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuek horixe adierazten dute- atzeritar langabeen kopurua %47,6 areagotu zen aurtengo bigarren hiruhilabetean.

Langabezia tasaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

10. irudia



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Eustatek estimatu dituen datuen arabera, kontratu mugagabea duten soldatapekoen ehunekoak baieztatu du aldi baterakotasunak beheranzko joera hartu duela (%20,4). Hala ere, ekonomiak hartu berri duen norabidea ikusita joera hori aldatu daiteke, azken hiruhilekoan sinatu diren aldi baterako kontratuak berriro igo zirelako (%0,7), hiruhileko askotan jaitsierak jaso ondoren. Gizonak dira neurri handiagoan aldi baterakotasunaren beherakadaz baliatzen direnak, beraien tasa emakumeena baino askoz ere txikiagoa baita (%18,5, emakumeena %22,7 den bitartean). Eurogunean ere emakumeen tasa gizonena baino handiagoa da, baina sexuen arteko aldeak ez dira horren handiak.

Egindako kontratuei dagokienez, lanpostu finkoen kopurua igo dela INEMen kontratazioan ere hautematen da. Hain zuzen ere, mugagabeko kontratuen kopurua %3,1 gehitu zen. Dena dela, sinatzen diren kontratu guztien artean mugagabeak %5 baino ez dira oraindik. Guztira, kontratu gutxiago sinatu ziren aurreko urteko hiruhilabete beraren aldean, ekonomiaren moteltzearen ondorioz. Hala eta guztiz ere, deigarria da mugagabe bihurtutako kontratuen bilakaera, bigarren hiruhilekoan %13,7 areagotu zirelako. Zenbateko hori puntuala dela ematen du, zeren eta uztailen eta abuztuan argitaratu diren datuetan ez baita horren segidarik hauteman eta aldakuntza tasa negatiboak jaso ziren berriro.

Prezioak, kostuak eta soldatak


Bigarren hiruhilekoan, inflazioaren gorakada KPIren osagai gorabeheratsuenetan, hots, elikagaietan eta, bereziki, energiaren prezioetan, oinarritu zen, azken horiek petrolioaren garestitze garrantzitsua nozitu zutelako. Horiek horrela izanda, kontsumo prezioek beren urte arteko aldakuntza tasa bizkortzen jarraitu zuten eta hiruhilabetearen batez bestean %4,5ean kokatu ziren, aurreko hiruhilabeteko datua bi hamarrenetan gaindituz. Baina urteko tasarik gorena uztailan jaso zuten (%5,2). Zorionez, munduko ekonomia aurten eta datorren urtean gutxiago haziko dela egiaztatu denez eta, horren ondorioz, petrolio gordinaren eskaria aurreikusita zegoena baino gutxiago haziko dela pentsatzen denez, abuztuan lehengai horren salneurriak moteltzeko joera arina hartu zuen, kontsumoko prezioen aldakuntza tasa %4,9ra murriztu zuelarik.

Energiako ekoizkinei dagokienez, gehikuntzaren oinarrian petrolioaren prezioak nazioarteko merkatuetan izan zuen gorakada dago, neurri batean, euroak dolarraren aldean irabazi duen sendotasunak apaldu bazuen ere. Hain zuzen ere, petrolio gordinaren prezioa aurtengo lehen sei hilabeteetan %45 baino gehiago garestitu zela adierazi behar da, uztailan upelaren balioak 147 dolarrak gainditu zituelarik. Hala ere, irailean nabarmen egin zuen behera eta 90 dolarren inguruko maila jaitsi zen, bilakaera horretan dolarrak euroaren aldean berreskuratu zuen balioak garrantzia hartu zuelarik. Antzeko bilakaera izan zuten landutako elikagaien salneurriek, inflazioaren azken gorakaden beste erantzule nagusia baitira, hainbat hilabetez goranzko joera jaso ondoren, abuztuan, argitaratu diren azken datuak hilabete horretakoak baitira, hazkunde tasa gutxitu zutelako.

Oro har, prezioak igo ziren arren, azpiko inflazioa egonkor mantendu zen %3,3an. Horrek garbi adierazten du inflazioaren gorakada aipatu diren osagaiek (energiak eta elikagai freskoek) eragin zutela, hots, hondarreko inflazioa deritzona. Horren ondorioz, azpiko inflazioaren eta inflazio orokorraren arteko aldea puntu bat eta bi hamarrenera zabaldu da, azken urteetako handiena delarik. Osagaien artean, azpimarratu behar da, alde batetik, zerbitzuen bilakaera, oraindik inflazio tasa altu samarrak erakusten dituztelako, nahiz eta gaur egun KPI orokorraren baino txikiagoak diren eta nolabaiteko egonkortasuna marrazten duten, kanpo lehiatik babestuta egon arren. Beste aldetik, industriako ondasunek oso bilakaera onari atxiki diote, neurri handi batean eskaria ahuldu delako.

KPIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

11. irudia



Iturria: Eurostat eta INE.

Inflazioaren analisia taldeka egiten denean, lehenago adierazitakoa baieztatzen da. Alde batetik, azpimarratu behar da etxebizitzak, garraioak eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariei jasan dituzten prezio igoerak. Talde horiek guztiak petrolioaren eta lehengaien gorabeherak kaltetu dituzte. Beste aldetik, zerbitzuei lotuta dauden talde batzuek, hala nola irakaskuntzak eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeak biltzen dituenak, erakutsi duten bilakaera gorakorra nabarmendu behar da, beraien urte arteko tasek %4aren gainetik jarraitzen dutelako.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

19. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2006	2007	2008		Ekarpena
			I	II	
Inflazioa guztira (%100)	3,4	2,8	4,3	4,5	4,9
Azpiko inflazioa (%82,9)	2,9	2,8	3,3	3,3	3,5
KPI Landutako elikagaiak (%15,6)	3,6	4,0	7,6	7,7	7,3
KPI Industriako ondasunak (%29,6)	1,4	0,7	0,4	0,2	0,7
KPI Zerbitzuak (%37,7)	3,7	3,9	3,7	3,8	4,1
Hondarreko inflazioa (%17,1)	6,1	3,0	9,5	10,6	11,7
KPI Landugabeko elikagaiak (%7,4)	4,3	4,2	6,2	5,6	6,0
KPI Energia (%9,7)	7,9	1,9	12,6	15,1	16,7

Iturria: INE.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

20. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2006	2007	2007		2008	
			IV	I	II	Abuztua
Indize orokorra	3,4	2,8	4,0	4,3	4,5	4,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,1	3,8	6,7	7,5	7,2	7,1
Edari alkoholodunak eta tabakoa	2,0	6,6	5,9	3,6	4,3	4,0
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,4	1,4	0,8	0,7	0,4
Etxebizitza	6,3	3,6	4,5	4,5	6,0	7,8
Etxe hornidura	3,0	3,5	3,1	3,5	2,8	2,8
Medikuntza	1,9	-0,5	-1,1	-0,4	-0,1	-0,2
Garraioa	4,3	2,3	6,2	7,1	8,2	8,2
Komunikazioak	-1,3	0,2	0,7	0,4	-0,1	-0,1
Aisia eta kultura	0,4	-0,9	-1,1	-0,2	-0,8	1,0
Irakaskuntza	4,5	4,5	4,4	4,6	4,6	4,7
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	3,9	4,6	4,4	4,5	4,6	4,7
Besteak	3,0	3,2	2,9	2,9	3,3	3,7

Iturria: INE.


Industriako prezioei dagokienez, IPRIk neurtuta, adierazi behar da goranzko joerari segida eman ziotela (%8,4 igo ziren urte arteko tasan), petrolioaren salneurriak izan zituen gorakada handiek kaltetuta, eta eskura dagoen azken hilabeteen balio altuenak jaso zituela. Hain zuzen ere, abuztuan, prezioak gehien igo zituzten ekoizpen taldeak petrolio fintzea, lehengai horrekin duen lotura estuaren ondorioz %16,9 garestitu baitzen, eta argindarra, gasa eta ura (%21,6) izan ziren, azken hau argindarraren tarifen igoeraren ondorioz. Ekipamendurako ondasunek, ordea, beren prezioen igoera egonkor mantendu zuten, ekonomiaren moteltzearen ondorioz ekoizkin horien eskaria txikiagoa delako. Beste aldetik, kontsumorako ondasunen multzoak beren prezioen igoerak gutxitzeko joera leuna erakutsi du, kontsumo iragankorreko ondasunen eskutik. Hala eta guztiz ere, beraien urte arteko aldakuntza tasak oraindik altu samarrak dira. Janaritarako erabiltzen diren lehengaien garestitzea dago bilakaera horren atzean. Azkenik, bitarteko ondasunak biltzen dituen taldeak ere nabarmen areagotu zituen prezioak igotzeko erritmoa (%8,6).

IPRIren bilakaera


12 irudia

Urte arteko aldakuntza tasak

Indize orokorra



Energia



Iturria : Eustat.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

21. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007		2008	
			IV	I	II	Abuztua
Indize orokorra	5,0	4,0	4,3	4,6	5,0	8,4
Kontsumoko ondasunak	2,9	4,1	5,3	4,7	5,0	4,4
- Kontsumo iraunkorrak	0,6	1,4	1,4	2,0	2,9	3,7
- Kontsumo iragankorrak	3,8	5,3	6,9	5,8	5,8	4,7
Ekipamendurako ondasunak	0,9	3,9	4,1	3,4	2,7	2,7
Bitarteko ondasunak	6,2	6,0	2,3	2,0	3,2	8,6
Energia	8,9	-1,4	9,0	13,9	13,5	19,1

Iturria: Eustat.

Lan kostuek aurtengo lehen hiruhilekoan dagoeneko erakutsi zuten goranzko portaerari jarraipena eman zioten eta langile bakoitzeko kostua %6,3 areagotu zen, azken urteetako gorakadarik handiena delarik. Bizkortzen horren atzean, neurri handi batean, hitzarmen kolektiboetan adostu ziren salbagoardiako klausulen eragina dago. Soldaten kostuak gainontzeko osagaiak baino gehiago igo ziren urte arteko tasan, industrian eta zerbitzuetan jaso zuten gehikuntza garrantzitsuen ondorioz. Eraikuntzaren igoera apalak ezin izan zuen konpentsatu beste arloen gehikuntza.

LAN KOSTUEN BILAKAERA

22. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007			2008	
			II	III	IV	I	II
Kostu guztiak	2,3	4,7	4,4	5,1	4,9	5,9	6,3
- Soldata kostuak	2,2	4,8	4,5	4,9	4,8	6,1	6,4
- Bestelako kostuak	2,7	4,4	4,0	5,8	5,1	5,2	6,1
Kostu guztiak industrian	2,9	4,3	5,6	4,3	3,4	8,2	7,0
Kostu guztiak eraikuntzan	4,6	6,8	4,0	7,2	9,1	4,5	4,5
Kostu guztiak zerbitzuetan	2,2	4,7	4,0	5,4	5,1	5,0	6,5

Iturria: INE.

Pentsatzekoa zenez, kontsumoko prezioen etengabeko igoerak lan hitzarmenetan adostu zen batez besteko soldata igoeran islatu ziren, ekainean %5era iritsi baitzen. Tasa horrek 2007ko batez besteko igoera zortzi hamarrenetan gainditzen du. Zenbateko horri gehitu beharko zaio dagoeneko aipatuak izan diren salbagoardiako klausulen eragina. Horiek horrela izanda, gaur egun erabiltzen diren soldatak indexatzeko tresna horiek iragankorrak diren gaur eguneko inflazio igoerak soldatetara igarotzea ahalbidetzen dute. Hala ere, soldata errealak, hots, inflazioaren eragina kenduta, lehiakortasun irabaziak baino gutxiago ari dira hazten.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

23. TAULA

	2004	2005	2006	2007	2008 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,0	4,5	4,9	4,2	5,0
- Urtean zehar sinatutakoak	3,9	4,3	5,0	4,1	4,8
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	4,0	4,6	5,0	4,2	5,2
- Enpresako hitzarmenak	3,8	4,1	4,1	4,2	4,1

(*) 2008ko ekaina arte jasotako lan hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Aurrekontuetako eragiketen arloan, ekonomiaren moteltzeak, bereziki etxegintzan eta eraikuntzan, baina baita kontsumoan eta beste zerga batzuetan ere, eragina izan duenak, diru sarrera arrunten bilakaera baldintzatu du, eta ekaina arte goranzko norabidea hartu bazuten ere, hazkunde erritmoa motelagoa izan zen. Hain zuzen ere, diru sarrerak %5,4 baino ez ziren gehitu iazko seihileko beraren aldean. Aitzitik, gastu arruntak %10,3 areagotu ziren, bereziki funtzionamendurako gastuek eta transferentzia arruntek bultzatuta. Hurrengo hilabeteetako diru bilketaz dagoeneko argitaratu den informazioak askoz ere negatiboagoa den egoera erakusten du.

Horiek horrela, eragiketa arrunten saldoa %52 jaitsi zen ekainean iazko epe beraren emaitzarekin alderatzen denean. Orobat, kapitaleko eragiketen bilakaera okerragoa izan zen. Eragiketa horien artean, azpimarratu behar da kapitaleko diru sarrerak oso txikiak direla oraindik, baina kapitaleko gastuak nabarmen areagotu direla, administrazioak azpiegitura berriak garatzeko egiten ari den bultzadaren ondorioz.

AURREKONTUEN ERAGIKETA BATERATUAK (2008ko urtariletik ekainera)

24. TAULA

Mila eurotan

	2007	2008	Aldak. %
1. SARRERA ARRUNTAK	5.461.110	5.755.545	5,4
2. GASTU ARRUNTAK	5.034.330	5.550.745	10,3
Langileen gastuak	978.064	1.059.695	8,3
Funtzionamenduko gastuak	1.218.419	1.396.256	14,6
Finantza gastuak	25.374	27.578	8,7
Transferentzia arruntak	2.812.473	3.067.216	9,1
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	426.780	204.800	-52,0
4. KAPITALEKO SARRERAK	36.002	44.748	24,3
5. KAPITALEKO GASTUAK	476.343	515.368	8,2
Inbertsio errealak	239.241	244.423	2,2
Kapitaleko transferentziak	237.102	270.945	14,3
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-440.341	-470.620	-6,9
7. FINANTZAZ BESTELAKO ERAGIKETEN SALDOA (3+6)	-13.561	-265.820	-1.860,2

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2008ko urtariletik abuztura)

25. TAULA

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2007	2008	Aurrekon. %	08/07 aldak. %
PFEZ	2.621.297	2.768.641	62,9	5,6
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	2.689.923	2.926.484	68,3	8,8
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	148.276	209.647	92,2	41,4
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	28.153	47.555	111,7	68,9
- Ondare irabazien atxikipenak	24.850	23.534	60,9	-5,3
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	136.138	132.598	68,3	-2,6
- Kuota diferentzial garbia	-406.043	-571.176	---	-40,7
Sozietateen gaineko zerga	1.747.937	1.530.071	75,6	-12,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	148.276	209.647	68,3	41,4
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	28.153	47.555	92,2	68,9
- Ondare irabazien atxikipenak	24.850	23.534	111,7	-5,3
- Kuota diferentzial garbia	1.546.658	1.249.335	72,8	-19,2
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	102.540	110.768	92,5	8,0
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	48.944	54.455	67,4	11,3
Ondarearen gaineko zerga	153.910	180.405	223,4	17,2
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	4.674.628	4.644.340	68,3	-0,6
BEZaren bertoko kudeaketa	2.293.015	2.211.226	57,2	-3,6
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	263.882	133.956	32,7	-49,2
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	87.014	78.589	56,2	-9,7
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	52.357	36.107	44,7	-31,0
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	854.822	878.003	57,0	2,7
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	38.905	40.301	75,3	3,6
Aseguru sarien gaineko zerga	47.473	47.741	58,5	0,6
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	3.637.950	3.425.970	55,5	-5,8
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	69.951	61.467	50,3	-12,1
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	8.382.529	8.131.777	62,1	-3,0
BEZaren doikuntza	572.713	569.791	44,5	-0,5
Zerga berezien doikuntza	-63.447	-72.380	89,1	-14,1
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	8.891.795	8.629.188	60,4	-3,0

Iturria: Foru Aldundiak.

Abuztu arteko datuak ezagututa, itunpeko zerga guztien diru bilketa %-3,0 jaitsi zen aurreko urteko epealdi berean jasotako emaitzaren aldean. Azpimarratzekoa da bai zuzeneko zergek bai zeharkako zergek aurreko urtean baino diru gutxiago bildu zirela. Hain zuzen ere, lehenengoez diru bilketaren %-0,6 galdu zuten eta zeharkako zergek %-5,8 gutxiago lortu zuten.

Zuzeneko zergen artean, PFEZ zergak emaitza positiboak lortu zituen, baina tamaina txikikoak (%5,6), kuota diferentzial garbiaren okerragotze nabarmenaren ondorioz. Gogoratu behar da zerga horretan aldaketak egin direla. Hala ere, erritmo apalagoan baina EAEko ekonomiak lanpostu berriak sortu ditu berriro. Horri gehitzen bazaio soldatak igo direla, lan jardueraren etekinen atxikipenak izan duen igoera justifikatuta dago. Beste aldetik, bankuetako gordailuen gorakadak higiezinaren etekinen gaineko atxikipenetan diru gehiago biltzea ahalbidetu du.

Zuzeneko zergen txanponaren ifrentzua sozietateen gaineko zergaren diru bilketa izan zen, aurtengo lehen zortzi hilabeteetan %-12,5 gutxitu baitzen, kuota diferentzial garbiaren beherakadaren ondorioz. Ekonomia jarduera bultzatzeko onartu berri diren neurriek, hala nola enpresa guztiek zerga aurreko ekitaldiaren emaitzen arabera kalkulatzeko aukera, zerga horren emaitzetan eragina izan zezakeen. Horri erantsi behar zaio oraingoz Araban eta Bizkaian, baina seguruena Gipuzkoan ere, zergaren tipoa %28ra murriztu dela.

Zeharkako zergeri dagokienez, BEZ zerga dagoeneko hasi da hautematen kontsumo pribatuaren motelaldia eta etxe berrien salmentaren jaitsiera, beste arrazoi batzuen artean. Zerga horrek jaso duen diru bilketa txikiagoa berton kudeatutako atalean (%-3,6) eta Estatuarekin eginiko eragiketen doikuntzan (%-0,5) gauzatu da. Ondarearen eskualdatzeen gaineko zergak ere nabarmen gutxitu du bere diru bilketa aurreko urteko epealdi berean lortutako kopuruaren aldean, neurri handi batean, bigarren eskuko etxebizitzaren salmentak ezagutu duen jaitsierarengatik.

Azkenik, ekoizpeneko zerga berezian atalean, osagai garrantzitsuenak, hots, hidrokarburoen gaineko zergak, %8,5eko gehikuntza metatu du. Datu hori deigarria da kontuan hartzen bada erregaiekin prezio altuek eta automobilen salmenta ahulak kontsumoa geldotu dutelako. Azken arrazoi hau garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziaren diru bilketan ere hauteman da, %-31,0 murriztu zelako.

Finantza arloa

Finantza munduaren globalizazioaren ondorioz, tokiko krisia zena nazioarteko krisia izatera igaro da, hala finantza arloan nola ekonomia errealean. Apirilean eta maiatzean kreditu merkatuak eta burtsek portaera egonkorragoa erakutsi zuten arren, ekainean eta uztailean joera hori bertan behera geratu zen, finantza merkatuetan tentsio berriak agertu zirelako, inflazioaren arriskuak areagotu baitziren eta banku batzuek finantza arazoak aitortu zituztelako. Orobat, hazkundeari buruzko igurikimenek pairatu zuten okertzea burtsen bilakaeran ere hauteman zen, maiatzetik aurrera beherakada garrantzitsuak gertatu zirelako eta ezegonkortasuna nabarmen areagotu zelako. Ekonomiaren egoera egongaitza dela eta, banku zentral nagusiek likidezia sartu zuten berriro sisteman.

Inflazio handiko eta hazkunde gero eta txikiagoko egoera ekonomiko honek dilema zaila aurkeztu die banku zentralari. Inflazioaren aurkako borroka moneta politika gogortzea dakar, interes tasak igoaraziz, baina horrek ekonomiaren motelaldia areagotuko luke. Aitzitik, interes tasen beherakada bat erabakiko balute ekonomiaren hazkundera suspertzeko, inflazioa areagotuko zen.


Egoera horren aurrean, banku zentral bakoitzak bide ezberdin bat hartu du, bere ekonomia lehentasunen arabera. Izan ere, Europako Banku Zentralak inflazioaren kontrolari ematen dio lehentasuna beste aldagaien gainetik. KPI indizea %4,0tik gora hazi zenez eta petrolioaren salneurria 150 dolarretara bideratzen zenez, interes tasak 25 oinarri puntutan igotzea erabaki zuen. Igoera hori 2007ko ekainaren lehena izan da eta horren ondorioz EBZ izan da petrolioaren eta elikagaien garestitze biziaren aurrean interes tasak igo zituen lehen moneta erakunde nagusia.

AEBetako Erreserba Federalak, ordea, lehentasuna ekonomiaren hazkundeari eman zion, prezioen bilakaeraren gainean, eta diruaren balioa hainbat hilabetetan jaitsi zuen, %5,25etik %2,0ra. Hala ere, ekonomiaren ahultasunak jarraitu egingo zuenez eta inflazioaren arriskuak areagotu zirenez, lehentasunak birplanteatu ditu. Eszenategi berri honetan, erabaki neutralena hartu du eta azken hilabeteetan interes tasak inolako aldaketarik gabe mantendu ditu.

Ingalaterrako Bankuak Fed-en erabakiari jarraitu zion eta inflazioaren presioen aurrean eta ekonomia hazkundera moteltze bizkorren beldur, interes tasak egonkor %5ean uztea erabaki zuen, bosgarren hilabetez. Azken jaitsiera apirilko bileran erabaki zuen eta puntu laurden batekoa izan zen.

Banku zentraletako erreferentzia tasak
Ehunekoak

13. irudia



Iturria: Espainiako Bankua.


Azkenik, Japoniako Banku Zentralak %0,5ean utzi zituen interes tasak, inolako aldaketarik gabe. Finantza merkatuek erabaki hori aurreikusten zuten, 2008ko bigarren hiruhilekoan Asiako ekonomia handiena moteldu zelako eta hamarkadako inflaziorik altuena jaso zuelako.

Euroaren truke tasa merkatuaren igurikimene aldaketek baldintzatu zuten. Iritzi horiek ekonomia nagusiek munduko moteltzearen aurrean erakusten duten sendotasunak eragiten ditu.


Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko

14. irudia


Dolarra




Libera esterlina



Suitzako frankoa



Yena




Iturria : Espainiako Bankua.

Gauzak horrela, ia maiatz osoan euroak dolarraren aldean balio irabazi ondoren, diru bakarraren kotizazioak gorabehera handiak erakutsi zituen ekainean eta uztailean, eta abuztuan balio galera garrantzitsua jaso zuen. Apirilean eta uztailean euroak, bereziki dolarraren gehiegizko ahultasunaren ondorioz, 1,60 dolarreko muga gainditu bazuen ere, bilakaera hori abuztuan irauli zen eta euroa 1,48 dolarreko mailan kokatu zen, azken sei hilabeteko apalena delarik. Balio galeraren atzean, ekonomia datuen argitarapena izan zen. Beraietan, estatubatuar ekonomiak %2,0tik gorako hazkunde harrigarria lortu zuen ezustean, europar ekonomiak moteltze nabarmena jaso zuen bitartean.

Japoniako ekonomiaren gainean sortu diren igurikimen okerragoek ere balioa eman zion euroari yenaren aurrean apirilaren eta uztailaren artean. Baita libera esterlinaren aurrean ere. Aitzitik, Suitzako frankoaren aurrean egonkor eta aldaketa handirik gabe mantendu zen.

Konfiantza faltak eragin kaltegarria izan zuen munduko burtsen bilakaeran. Horri eranstean bazaio hazkunde aurreikuspenen narriadura, ulergarria da kotizazioek izan zuten jaitsiera garrantzitsua eta ezegonkortasunaren gehikuntza. Europako indize batzuetan, urteko gutxieneko balioak jaso ziren. Abuztua arte, AEBetako indize nagusiek %15aren inguruko beherakada pilatuta zuten, eta europarrek %18aren eta %24aren bitartekoak. Brasil, Mexiko edo Errusia bezalako herrialdeetako indizeak azpimarratu behar dira, lehengaien prezio altuei esker gorantz egin zutelako.



Iturria: Espainiako Bankua.


2008ko bigarren hiruhilekoan emandako kredituak azken hamabi urteko hazkunderik txikiena jaso zuen, kontsumitzaileei emandako kreditua murriztu izanaren eta hipoteken interes tasen igoeraren ondorioz. Hipoteken kontratazioaren jaitsiera etxebizitzaren eskaria txikiagoarengatik eta interes tasen igoerarengatik gertatu zen, euriborra, etxebizitzak erosteko kredituetan erabiltzen den erreferentzia indize nagusia baita, igo baitzen. Hain zuzen ere, urte baterako euriborrak aurreko erregistro guztiak gainditu zituen eta %5,393an kokatu zen. Orain arte erreferentziako tasaren eta euriborraren arteko aldea 20 oinarri puntura mugatzen bazen ere, finantza merkatuetan hedatu zen konfiantza faltak puntu batetik gora igoarazi du alde hori.

Are gehiago, finantza merkatuetako likidezia arazoak larriagoak izatekotan, interesen arteko aldea gehiago zabalduko da.


Kreditu eta gordailuen bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

16. irudia

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainiako Bankua.

Berankortasun tasa maila txikietan mantendu zen, baina goranzko joera arina erakutsi zuen, lehen hiruhilabeteko %0,88tik bigarreneko %1,19ra igo baitzen. Gehikuntza txiki hori estaldura orokorreko ratioak estaltzen du, %161,95ean kokatuta baitago. Horrek esan nahi du ordaintzen ez den euro bakoitzarengatik badaudela 160 euro baino gehiago hori estaltzeko. Berankortasuna igo arren, nahiko apala da oraindik, are gehiago Erresuma Batuko, Alemaniako eta Italiako batez besteko tasarekin alderatzen bada, azken hauek %5,0aren inguruan baitaude.

Azkenik, pasiboak lortzea da bankuen lehentasun nagusietako bat, 2007ko erdialdetik bankuen arteko merkatuak astintzen duen likidezia faltaren aurrean. Hori dela eta, bankuek, aurrezki kutxek eta kooperatibek aurrezkiarentzako baldintza egokiak eskaini dituzte. Horren ondorioz, gordailu pribatuek 67.000 milioi euroak gainditu dituzte, urte arteko gehikuntza tasa %24,3 izan zelarik, 1982. urtetik inoiz jaso den handiena baita.

EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak

Ekonomiari buruzko aurreikuspenak egiten dituzten erakunde nagusien arabera, munduko ekonomiak moteltzeko joeran murgilduta jarraituko du 2008an eta 2009an, batez ere garatutako ekonomia industrializatuek hazkunde erritmoa gutxituko dutelako. Estatubatuar ekonomian sortu ziren eta geroztik gainontzeko eremuetara hedatu ziren arazoak dira munduko hazkundearentzat aurreikusten den jaitsieraren arrazoi nagusia.

AEBetako ekonomiarentzat egin diren 2008rako eta 2009rako aurreikuspenen gakoak honako alderdietan oinarritzen dira: energiaren prezio altuaren eragina, etxebizitzaren eraikuntzarekin zerikusia duten industrien bilakaera okerragoa eta finantza krisiaren sakontzea. Faktore horien eragina kaltegarriagoa izango balitz, estatubatuar ekonomia atzeraldian sartzeko benetako arriskua dago. Moteltzeko joera areagotu daitekeela pentsarazten duen beste elementu bat ekonomia eragileen mesfidantza da. Horiengatik guztiengatik, gobernuaren neurriak finantza krisia konpontzera eta herritarren igurikimenak hobetzera bideratuta daude.

AEBetan, industria bi multzotan banatuta dago, bilakaera erritmo oso ezberdina dutenak. Izan ere, etxebizitzaren eraikuntza, etxerako ondasunekin zerikusia duen industria, inbertsioko bankuak, automobilgintza eta ehungintza krisi garrantzitsua ari dira pairatzen. Gainontzeko adarrek, ordea, hazkundera gutxitzeko joera arina erakutsi duten arren, bilakaera sendoari eutsi diote. Etorkizuna baldintzatuko duen beste faktore garrantzitsu bat krisiaren eragin hedakorrak bigarren taldeko sektoreak irentsiko ote dituen eta ekonomia osora hedatuko den jakitea izango da.

Asiako ekonomiek ekarpen handia egingo diote munduko hazkundeari 2008. urtean ere, baina aurreko urteetan baino tasa txikiagotan. AEBetara eta Europara bideratutako esportazioak apaldu diren arren, Asia barneko eta Amerika Latinoko merkatu garrantzitsuekin eginiko merkataritza areagotu da. Inflazioaren presioa da, gaur egun, banku zentralen kezka nagusia. Energiak eta elikagaiek duten prezio altuek kontsumitzaileen gastua eta inbertsioak nabarmen murriztuko dituzte.

Japoniako ekonomiarentzat egin den hazkunde aurreikuspena %1,0aren inguruan kokatzen da 2008. urtean, 2007an lortutako %2,0ko hazkundera baino beherago. Ekonomia horrek aurre egin behar die zenbait arazori, batzuk barnekoak eta besteak kanpokoak direlarik. Barneko

arazoen artean, lan merkatua okertzen ari da, kontsumitzaileen igurikimenak ezkorrak dira eta inflazioak azken hamarkadako gehikuntzarik handiena jaso du, kostuak igoaraziz eta enpresen mozkinak murriztuz. AEBetara eta Europara bidalitako esportazioak, bereziki automobilgintza arlokoak, murriztu egin dira, erregaien prezioarengatik eta bertako herrialdeen motelaldiarengatik. Beste aldetik, Txinan eta garapen bidean dauden Asiako beste ekonomietan saldutako ondasunen kopurua areagotuko dela aurreikusten da.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

26. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Munduko Ekonomia	3,9	2,9	2,5	3,2	5,1	3,7
AEB	2,0	1,8	1,4	2,9	4,5	2,9
Kanada	2,7	0,9	1,8	2,2	2,7	2,3
Japonia	2,0	0,9	0,9	0,0	1,6	1,2
Eurogunea	2,6	1,3	0,9	2,1	3,5	2,4
Europar Batasuna	2,9	1,6	1,1	2,3	3,6	2,7
Alemania	2,5	1,9	0,8	2,3	2,9	2,1
Espainia	3,8	1,4	0,5	2,8	4,5	3,2
Frantzia	2,1	1,1	1,0	1,5	3,1	2,1
Herbehereak	3,5	2,2	1,3	1,6	2,7	2,6
Italia	1,4	0,2	0,5	1,8	3,6	2,7
Erresuma Batua	3,1	1,2	0,6	2,3	3,8	2,9
Pazifikoko Asia	6,2	4,8	4,6	2,7	4,9	3,6
Ekialdeko Europa	6,9	6,0	5,6	8,4	10,7	8,1
Amerika Latinoa	5,5	4,3	3,7	6,4	8,7	7,1

Iturria: Consensus Forecast (2008ko iraila).

Txinako ekonomiaren hazkundera zertxobait motelduko da 2008. urtean. Mendebalera zuzendutako esportazioak murriztuko dira, baina Asiako beste herrialde batzuetara bidalitakoak, ordea, igoko dira. Barne kontsumoa ere areagotuko da. Hala ere, soldaten igoerak manufakturen kostuak presionatuko ditu. Inflazioa mehatxua da herrialdearentzat. Txinako gobernuak petrolioaren salneurria kontrolatzen du eta ondasun horren eskaria murrizteko petrolioaren erosteko diru laguntzak gutxitu ditu. Horren ondorioz, kontsumitzaileak ordaintzen duen prezioa nabarmen areagotu da. Txinako Herri Bankuak, inflazioa kontrolatzeko eta likidezia edukitzeko, bankuen erreserba ratioa asko igo du.


India 2008an aurreko urteetan baino gutxiago haziko dela aurreikusten da. Bertako gobernuak erregaien prezioa 2008aren erdialdean igo bazuen ere, ondasun hori diruz laguntzeko politikari atxiki dio. Hala ere, egoera hori jasangaitza izan daiteke eta defizit publikoan arazo gehiago sor ditzake. Atzerriko inbertsioa bide onetik doa, baina kostuen igoerak eta mozkinen jaitsierak mendeabaitik datorren inbertsioa uxatu dezake.

BPGren bilakaera eremuka


17. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak


Eurogunea




AEB



Japonia



Txina



Iturria : NDF. 2008ko uztailako aurreikuspenak.


AEBetan bezala, Euroguneak lortuko duen ekonomia hazkundea gero eta txikiagoa izango da. Eremu horretako barne produktu gordina %2,6 hazi zen 2007. urtean, baina azken

aurreikuspenek emaitza apalagoak estimatzen dituzte 2008rako (%1,3) eta 2009rako (%0,9). Finantza krisia Europako bankuetara ere iritsi da eta kreditua lortzeko baldintzak zorrotz dizkie kontsumitzaileei eta europar inbertsiogileei. Etxegintzaren jarduera Europako herrialde gehienetan moteldu da eta beste batzuetan doikuntza garrantzitsua nozitzen ari da (Erresuma Batua, Irlanda eta Espainia). Merkatuetan euroak lortu duen balio irabaziak lehiakortasuna kendu die europar esportazioei nazioarteko merkataritzan. Hala ere, Europar Batasuneko kanpo saldoak ekarpen positiboa egin dio berriro hazkundeari. Beste aldetik, petrolioaren eta elikagaien garestitzeak eragin dituen ondorio kaltegarriak Europak ere pairatu ditu. Euroaren balio irabaziak ondorio negatibo horiek txarra arindu baditu ere, inflazioaren gaineko eragina garrantzitsua izan da.


Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera

18. irudia

Dolarrak euroko



Dolarrak upeleko



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Europako Banku Zentrala gehien kezkatu duen arazoa inflazioaren presioa izan da. Hala eta guztiz ere, aurreikuspenek iragartzen dutenez europar ekonomiak ahul jarraitzen badu, ez da interes tasen igoerarik espero. EBZrentzat kezka iturri izan den beste arazo bat subprime motako hipotekek eragin duten finantza krisia da. Krisi honen ondorioak leuntzeko, milioika euro sartu ditu merkatuan, moneta sistemaren likidezia bermatuko dutenak.

Espainiako ekonomiarentzat ere 2008 eta 2009 urteetarako hazkunde aurreikuspenetan beheranzko berrikusketa garrantzitsua egin da. Espainiako ekonomiak azken hilabeteetan izan duen bilakaerak eta nazioarteko testuinguruan gauzatu den narriadurak oraingo aurreikuspenek

duela hilabete gutxi batzuk eginikoe baina moteltze handiagoa erakuts dezatela eragin dute. Horiek horrela, Funcas-en aditu taldeak %1,4ko hazkundera aurreikusten du Espainiarentzat 2008. urtean eta %0,3 2009. urtean.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2008ko iraila-urria)
27. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inb. ekipoen eta bestean	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
AFI	1,3	0,3	0,8	-0,1	4,6	3,5	0,3	-2,6	-1,4	-3,5	2,5	-0,5
BBVA	1,5	0,5	1,0	0,5	5,4	5,2	-0,9	-5,7	-2,2	-5,6	-1,0	-10,2
Caixa Catalunya	1,5	0,3	1,2	0,8	4,3	4,0	0,0	-2,8	-2,4	-4,3	2,2	-2,9
Caja Madrid	1,4	0,3	1,0	-1,0	4,0	4,0	-1,3	-3,8	-4,2	-6,1	1,5	-3,2
CEPREDE-UAM	1,6	0,8	1,3	0,4	3,6	2,7	-0,1	-1,9	-2,2	-3,6	2,6	0,1
Merkataritza ganbarak	1,3	0,2	1,0	0,4	3,8	4,0	-0,5	-2,9	-3,1	-6,1	2,0	-1,1
FUNCAS	1,1	-0,5	1,0	-0,4	3,4	2,6	-2,0	-6,6	-3,8	-7,3	0,1	-7,0
ICAE-UCM	1,5	0,6	1,2	0,7	3,5	3,7	-0,2	-2,8	-2,5	-4,5	2,2	-1,8
ICO	1,5	0,9	1,1	0,4	3,7	3,5	-0,1	-1,2	-2,1	-3,3	2,6	1,9
IEE	1,3	---	1,3	---	4,5	---	-0,3	---	-3,0	---	2,8	---
IFL-UC3M	1,2	0,0	0,8	-0,1	3,5	3,8	-0,6	-2,8	-1,9	3,4	0,3	-3,1
Intermoney	1,3	-0,6	1,3	-0,3	3,6	2,4	-2,0	-7,4	-4,2	-9,6	0,7	-5,3
La Caixa	1,4	0,7	1,1	0,6	4,2	5,0	-1,0	-3,4	-3,5	-5,7	1,5	-2,0
SCH	1,5	1,0	1,3	1,0	4,9	4,8	-0,2	-2,4	-2,0	-4,5	3,1	0,8
Batez bestea	1,4	0,3	1,1	0,2	4,1	3,8	-0,6	-3,6	-2,7	-4,7	1,7	-2,6
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2008-07)	1,6	1,0	0,7	0,4	4,9	3,8	0,3	-1,5	---	---	---	---
Esp. Bankua (2008-04)	2,4	2,1	2,3	1,9	4,8	4,4	1,5	0,4	-0,2	-1,2	4,4	2,6
E. Batzord. (2008-09)	1,5	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
NDF (2008-07)	1,8	1,2	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2008-06)	1,6	1,1	1,2	1,1	5,1	5,2	0,0	-2,8	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

Lan merkatuan, bereziki adierazgarria da enpleguaren datuen bilakaera. 2008an eta 2009an, aurreikuspen horren arabera, landunen kopurua %0,1 eta %-1,1 haziko da, hurrenez hurren.

Eraikuntza arloan gertatzen ari den egituraketa da espainiar ekonomiak nozituko duen lanpostuen galera garrantzitsuaren eragile nagusia.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2008ko iraila-urria)

28. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BIA)	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
AFI	1,4	-0,1	4,3	2,0	3,8	0,5	4,4	3,6	-0,1	-1,8	11,0	14,9
BBVA	1,3	-0,3	2,2	0,3	1,4	-1,8	4,4	2,8	0,1	-1,3	10,7	13,8
Caixa Catalunya	1,5	0,5	3,0	2,0	2,3	1,9	4,4	2,4	0,2	-0,7	10,8	13,2
Caja Madrid	1,0	-0,8	3,6	2,8	2,2	-0,5	4,5	3,1	-0,1	-2,1	10,7	13,8
CEPREDE-UAM	1,3	0,5	3,6	3,9	2,5	1,3	4,6	3,5	0,3	-0,9	10,5	13,2
Merkataritza ganbarak	1,3	0,3	3,3	2,2	2,6	1,9	4,4	2,9	0,2	-1,4	10,6	13,5
FUNCAS	0,6	-1,6	3,1	2,5	1,0	-1,7	4,4	2,9	-0,3	-2,0	11,3	14,8
ICAE-UCM	1,4	0,3	3,5	2,5	2,3	0,9	4,7	4,1	0,4	-0,1	10,4	12,2
ICO	1,3	0,5	3,8	3,0	2,6	1,4	4,4	2,9	0,1	-0,5	10,5	12,5
IEE	1,5	---	3,4	---	3,3	---	4,6	---	0,2	---	11,0	---
IFL-UC3M	1,0	-0,3	3,2	2,4	2,1	1,1	4,4	2,7	0,1	-0,6	10,7	13,1
Intermoney	0,9	-1,7	2,8	2,1	1,1	-1,9	4,3	2,5	-0,2	-2,3	10,9	14,5
La Caixa	1,0	0,3	3,8	3,2	2,2	1,3	4,6	2,9	0,0	-0,9	10,7	12,7
SCH	1,7	0,8	3,0	1,6	3,1	0,7	4,5	3,2	0,7	-0,2	11,0	13,2
BATEZ BESTEA	1,2	-0,1	3,3	2,3	2,3	0,4	4,5	3,0	0,1	-1,1	10,8	13,5
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2008-07)	1,3	0,5	4,1	4,0	2,6	1,9	---	---	0,2	-0,5	10,4	12,5
Esp. Bankua (2008-04)	2,5	1,9	4,0	4,5	4,1	3,4	3,6	2,3	1,5	1,1	9,0	9,8
E. Batzord. (2008-09)	---	---	---	---	---	---	4,5	---	---	---	---	---
NDF (2008-07)	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2008-06)	1,5	0,7	4,3	4,6	3,6	2,9	---	---	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

Espainiaren hazkunde eredua barneko indarretan, hala nola kontsumoan eta etxebizitzetan eginiko inbertsioan, oinarritu da eta gaur egun eredu hori agortuta dago. Nazioarteko finantza krisiari, hori baita aldaketa bizkortu duena, gehitzen bazaizkio kredituen murrizketa, higiezinaren merkatuaren beherakada eta petrolioaren eta elikagaien garestitzetik ondorioztatu diren tentsioak inflazioan, kezkatzeko moduko eszenategi makroekonomikoa aurreikusten da,

ekonomiaren gelditasuna eta inflazioa uztartzen dituen. Ezinbestekoa da beste eredu bat sortzea, industrian eta teknologia aurreratuagoko zerbitzuetan oinarritua eta nazioartean lehiakorragoa den eta ekoizkin zein merkatu berriak jorratzen dituen arlo esportatzaile bat garatzen duena.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2008ko iraila)

29. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak



	08.III	08.IV	2008	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009	2010
BPG	1,3	0,8	1,6	0,8	0,8	0,8	0,7	0,8	0,7
Kontsumo pribatua	1,3	0,6	1,3	0,4	0,3	0,4	0,6	0,4	0,6
Kontsumo publikoa	3,6	3,4	3,6	3,3	2,8	2,4	2,2	2,7	2,8
Kapital finkoaren eraketa gordina	-1,2	-1,3	0,0	-1,3	-1,5	-2,1	-2,9	-1,9	-2,2
- Inbertsioa ekipamenduan	1,7	1,4	2,7	1,3	1,0	0,2	-2,2	0,1	-1,6
- Inbertsioa bestelakoetan	1,9	1,7	3,2	1,6	1,1	0,0	-0,4	0,6	-0,4
- Inbertsioa eraikuntzan	-3,3	-3,3	-2,2	-3,3	-3,5	-3,8	-3,9	-3,6	-3,2
Barne eskaria	1,1	0,8	1,5	0,7	0,7	0,4	0,2	0,5	0,1
Esportazioak	3,3	2,8	3,6	3,4	3,7	4,0	4,4	3,9	3,8
Inportazioak	1,9	1,8	2,5	1,6	1,4	1,3	1,1	1,3	1,4

Iturria: CEPREDE.

Ekonomiaren aztertzaile gutxik aurreratzen dute noiz amaituko den gaur eguneko moteltze ekonomikoa. Lehenengoa eta behin, finantza merkatuetako ziurgabetasuna konpondu behar da, finantza krisiak bankuen balantzeetan eta emaitzetan izan duen eraginaz argibide zehatzak eta gardenak ezarri. Une horretatik aurrera, konfiantza berreskuratuko da, likideziaren arazoak konponduko dira eta ezari-ezarian kredituen eskaintza normaltasuna itzuliko da. Prozesu horretan, ekonomiaren eragileek nahitaezko doikuntzak egin beharko dituzte. Familiek zorpetze maila murriztu beharko dute eta aurrezki tasa igo. Higiezin arloak etxebizitzaren kopuruaren eskariaren eta eskaintzaren arteko oreka berreskuratu beharko du. Beste aldetik, enpresek berrikuntzako proiektuak garatu beharko dituzte lehiakorragoak izango diren ekoizkinekin merkatuak zabaltzeko.

Estatuko BPGren bilakaera eta ekarpenak
Urte arteko aldakuntza tasak

19. irudia



Iturria : INE eta CEPREDE.

EAErako aurreikuspenak epe laburrean

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2008ko udaberrian egin zituen aurreikuspenak berrikusi ditu eta beherantz zuzendu du EAEko ekonomiaren hazkunde tasak 2008an eta 2009an lortuko duen emaitza. Jaitsiera horren atzean, kontsumo pribatuaren, industriaren eta higiezinaren eskariaren galga datza, pentsa zitekeena baino gehiago moteldu delako, bereziki gogoratzen bada 2008ko lehen hiruhilekoan ekonomia %3,1 hazi zela eta aurreko urteko epe beraren aldean 15.000 lanpostu baino gehiago sortu zituela. Beste alderdi garrantzitsu bat enpresek eta finantza erakundeek nazioarteko merkatuetan dituzten zailtasunak dira, finantza sisteman dagoen ziurgabetasun handiaren ondorioz, barne eskariaren bilakaera murriztu baitute.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2008ko iraila)

30. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	08.I	08.II	08.III	08.IV	2008	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009
BPG	3,1	2,6	2,0	1,6	2,3	1,6	1,5	1,5	1,4	1,5
Azken kontsumoa	2,9	2,2	1,6	1,4	2,0	1,6	1,6	1,5	1,4	1,5
Kontsumo pribatua	2,4	1,4	1,0	0,8	1,4	1,0	1,0	1,0	0,9	1,0
Kontsumo publikoa	5,1	5,6	4,5	4,3	4,9	4,2	4,3	3,9	3,6	4,0
Kapital eraketa gordina	3,1	3,2	2,3	1,6	2,5	1,7	1,5	1,4	1,2	1,4
Barne eskariaren ekarpena	3,2	2,6	2,1	1,8	2,4	1,9	1,9	1,5	1,3	1,7
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,1	0,0	-0,1	-0,2	-0,1	-0,3	-0,4	0,0	0,1	-0,2
Lehen arloa	5,3	-0,2	0,1	-8,0	-0,7	-7,4	-13,9	-14,0	-12,4	-11,9
Industria	1,8	1,4	0,9	0,6	1,2	0,7	0,8	1,0	0,9	0,8
Eraikuntza	2,4	1,1	0,8	0,6	1,2	0,5	0,4	0,4	0,2	0,3
Zerbitzuak	3,6	3,4	2,7	2,3	3,0	2,2	2,1	2,0	2,0	2,1
Balio erantsi gordina	3,0	2,6	1,9	1,5	2,2	1,5	1,4	1,4	1,4	1,4
Ekoizkinen g. zerga garbiak	3,5	3,1	2,9	2,7	3,1	2,6	2,6	2,3	2,1	2,4
BPGren deflatoea	3,7	4,1	3,8	3,4	3,8	3,3	3,2	2,9	2,6	3,0
Enplegua	1,7	1,1	1,1	0,9	1,2	0,8	0,8	0,7	0,5	0,7
Langabezia tasa	3,3	3,5	4,0	4,2	3,8	4,2	4,2	4,4	4,4	4,3


Iturria: Eustat (2008ko lehen eta bigarren hiruhilekoak) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Testuinguru horretan, 2008rako eta 2009rako aurreikuspenek hazkunde tasa txikiagoak iragartzen dituzte. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren estimazioek %2,3an kokatzen dute hazkunde tasa 2008. urtean eta %1,5ean 2009. urtean. Eskariaren ikuspegitik, EAEko

familiak kontsumoan gastatuko dutenak nabarmen apalduko du aurreko urteetako ibilbidea. Prezio altuek, enplegua sortzeko ahalmen gero eta txikiagoak eta konfiantza faltak sortutako egoera ezkor batean, familien kontsumoa %1,4 eta %1,0 haziko da, hurrenez hurren, 2008an eta 2009an. Kontsumo publikoak, berriz, hazkunde biziko bilakaerari eutsiko dio eta moteltzeko joera orokorraren aurrean konpentsazio sistema gisa agertuko da.

EAEko BPGren bilakaera eta ekarpenak
Urte arteko aldakuntza tasak

20. irudia



Iturria Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Kapitaleko eraketa gordinari dagokionez, etxebizitzarekin lotura duen agregatuak bizitasun galera garrantzitsua erakutsiko du. Ekoizteko jarduerari lotuta dagoen inbertsioan, berriz, ziurgabetasuneko testuinguruak eta barne zein kanpo eskaeren apaltzeak aldagai horren hazkunde erritmoa gutxituko dute. Hala eta guztiz ere, kapital eraketa gordina 2008. urte osoan %2,5 eta 2009. urtean %1,4 areagotuko dela aurreikusten da. Kanpo arloak barne produktu gordinaren hazkundeari egingo dion ekarpen negatiboa nahiko txikia izango da. Atzerriarekiko saldoa oraindik positiboa izango den arren, EAEko ondasunen merkatu nagusiak, hots, espainiar ekonomiak, zaila egingo du kanpo arloaren guztizkoak BPGren hazkundeari hamarrenik ekartzea.

Eskaintzaren ikuspegitik, ekonomiaren adar guztiek jasoko dituzte hazkunde txikiagoak. Bereziki garrantzitsua izango da eraikuntzaren balio erantsiak izango duen beherakada, zeren eta 2008. urterako aurreikusi den hazkundea %1,2 izango baita, eta 2009rakoa, berriz, %0,3 baino ez. Enpresen inbertsioaren eta familien kontsumoaren bizitasuna galgatzeko denez,

industriaren balio erantsia gutxiago areagotuko da, hazkunde tasa %1aren inguruan kokatu delarik, eta baita zerbitzuena ere, hurrenez hurren %3,0 2008an eta %2,1 2009an haziko dela aurreikusten baita.

Lan merkatuan arian-arian moteltzeko joera gauzatzen ari den arren, BPGren hazkundearen aurreikuspenek oraindik lanpostu garbiak sortuko direla iragartzen dute, nahiz eta udaberrian estimatu zen tasa lortuko ez den. Hain zuzen ere, orain aurreikusten den enplegu sorrera %1,2 2008an eta %0,7 2009an da. Tasa horiek, hurrenez hurren, 12.000 eta 7.000 lanpostu garbi sortuko direla iradokitzen dute. Eraikuntzaren adarrean lan eskua nabarmen murriztuko da eta arlo horretako enplegu galera gainontzeko sektore guztietan, baina bereziki zerbitzuetan, sortuko direnekin konpentsatuko da. Ekoizkertasunaren irabaziei dagokienez, estimazio honetan kontuan hartzen den bi urteko epealdian, %1,0aren inguruan kokatuko direla aurreikusten da.

Taula makroekonomikoa egiteko orduan, zenbait aldagaik etorkizunean izango duten bilakaeraz hipotesiak egin dira. Aldagai horien artean, prezioen indize orokorra, merkatuetako interes tasak, truke tasa eta, ezinbestekoa denez, munduko eremu nagusietan ekonomiak izango duen bilakaera.

KPI-REN AURREIKUSPENAK (2008ko iraila)

31. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak										
	08.I	08.II	08.III	08.IV	2008	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009
AEB	4,1	4,4	5,4	4,4	4,6	4,2	3,0	2,3	2,7	3,0
Eurogunea	3,4	3,7	3,8	3,1	3,5	2,8	2,2	1,8	1,9	2,2
Espainia	4,4	4,6	4,9	3,7	4,4	3,2	2,7	2,3	2,6	2,7
EAE	4,3	4,5	4,9	3,8	4,4	3,2	2,8	2,4	2,6	2,8

Iturria: Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Inflazioaren gorakada da datozen hilabeteetan ekonomiaren bilakaera kaltetu dezaketen mehatxu nagusietako bat. Hala eta guztiz ere, eta salneurriak azken hilabeteetan goranzko joera garbia erakutsi duten arren, gehienezko tasa pasa den udan jaso zela estimatu da, eta prezioak ezari-ezarian motelduz joango direla 2008ko abendua arte. Are biziagoa izango da apaltzea 2009. urtean zehar. BPGren deflatoreak jaitsiera hori hartzen du barnean eta aldagai hori 2008an %3,8 haziko dela aurreikusten da, 2009. urtean %3,0ra jaisteko.


Euroguneko interes tasei dagokionez, prezioen bilakaerak baldintzatuko dituela hartu da kontuan. Hori horrela izanda, Europako Banku Zentralak 2008. urte amaieran interes tasak behin gutxituko dituela aurreikusi da eta 2009. urte amaieran parte hartze tasak %3,5aren inguruan kokatuko dituela.

Taula makroekonomikoa egiteko orduan kontuan hartu den truke tasak euroak dolarren aldean lortu duen sendotasunean oinarritzen da. Euroaren kotizazioa urte amaieran 1,48 dolarretan egongo dela estimatu da. Hala ere, 2009. urtean zehar euroa zertxobait ahulduko dela aurreikusten da. Horren ondorioz, europar dirua 1,38 dolarren truke ordainduko da 2009ko batez bestean.


KPIren bilakaera 21. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak

EAE



Eurogunea



Iturria: Eurostat, INE, Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

